

euskara ikasten ari garenon aldizkaria



Mariasun Landa:


**“Bizitzak pentsatzen ez nuen
bidetik eraman nau,
baina azkenean nahi nuen
lekura ailegatu naiz”**

Gaurgero:
3. maila
egiaztatzeko
deialdia

Gaurgero:
Donostiako
olaturik
handiena

Gaurgero:
Familia enpresak
bultzatzeko katedrea

Sekuentzia
Didaktikoa:
Zer dakizu egiten?



GIPUZKOA

ANDOAIN

ERNAITZA LIBURUDENDA
Zumea, 2
20140 ANDOAIN

BERGARA

ELKAR MEGADENDA BERGARA
Ibargarai, 12
20570 BERGARA
bergara@elkar.com

DONOSTIA

HONTZA LIBURUDENDA
Okendo, 4
20004 DONOSTIA

ELKAR MEGADENDA DONOSTIA

Fermin Calbeton, 21-30
20003 DONOSTIA
fcalbeton@elkar.com

ELKAR MEGADENDA

Bergara, 6
20005 DONOSTIA
bergarakalea@elkar.com

IRUN

ELKAR MEGADENDA IRUN
Colon pasealekua, 8
20300 IRUN
irun@elkar.com

OSKARBI LIBURUDENDA

Colon pasealekua, 11
20302 IRUN

TOLOSA

ELKAR MEGADENDA TOLOSA
Aroztegieta, z/g.
20400 TOLOSA
tolosa@elkar.com

OÑATI

IBARRONDO LIBURUDENDA
Plaza. Fueros, 10
20560 OÑATI

ZARAUTZ

GAROA LIBURUDENDA
Trinidad, 7
20800 ZARAUTZ

BIZKAIA

BARAKALDO

MILOS PALENZUELA
LIBURUDENDA
Uribe Merindadea, 14
48901 BARAKALDO

BASAURI

BIOK LIBURUDENDA
Dr. Garay, 11
48970 BASAURI

BILBO

CASA DEL LIBRO-URQUIJO
Alda. Urquijo, 94
48009 BILBO

CASA DEL LIBRO,

LA LIBRERÍA
Colon de Larreategi, 41
48009 BILBO

MACEDA LIBURUDENDA

Santa Clara, 16
48006 BILBO

HERRIAK LIBURUDENDA

Licenciado Poza, 11
48008 BILBO

VERDES LIBURUDENDA

Correo, 7a
48005 BILBO

ELKAR MEGADENDA BILBO

Iparragirre, 26
48011 BILBO
iparragirre@elkar.com

LIZARDI LIBURUDENDA

Heliodoro de la Torre, 9
48014 BILBO

CAMARA LIBURUDENDA

Euskalduna, 6
48008 BILBO

BINARIO LIBURUDENDA

Iparragirre, 9 bis
48009 BILBO

KUKUMA LIBURUDENDA

Colon de Larreategi, 21
48001 BILBO

KIRIKIÑO LIBURUDENDA

Colon de Larreategi, 11
48001 BILBO

LAUAXETA LIBURUDENDA

Rodriguez Arias, 45
48011 BILBO

DURANGO

HITZ LIBURUDENDA
Artekalea, 14
48200 DURANGO

LEIOA

ARTAZA LIBURUDENDA
E.H.U. Leioako Kanpua
Posta kutxa 56
48940 LEIOA

SANTURTZI

TEMAS LIBURUDENDA
Pagazaurtundua, 3
48980 SANTURTZI

ARABA

GASTEIZ

ELKAR MEGADENDA GASTEIZ
San Prudencio, 7
01005 GASTEIZ
sanprudencio@elkar.com

CASA DEL LIBRO-AXULAR

LIBURUDENDA
Arka, 11
01005 GASTEIZ

STUDY LIBRERÍA

Fueros, 12
01004 GASTEIZ

AYALA LIBURUDENDA

ELKAR MEGADENDA GASTEIZ

Apraiztarrak, 1-Campus
01006 Araba
campus@elkar.com

NAFARROA

ARBIZU

BERIAIN LIBURUDENDA

ETXARRI

KAXETA LIBURUDENDA

IRUÑEA

AUZOLAN LIBURUDENDA
San Gregorio, 3
31001 IRUÑEA

AUZOLAN LIBURUDENDA

(Berria)
Tutera, 16
31003 IRUÑEA

ELKAR MEGADENDA IRUÑEA

A.M. Larraona, z/g.
Golem Eraikina
31008 IRUÑEA
amlarraona@elkar.com

LIBRERÍA EL PARNASILLO

Castillo de Maya, 45
31004 IRUÑEA

IPARRALDEA

BAIONA

ELKAR MEGADENDA BAIONA
Arsenal Plaza
64100 BAIONA
baiona@elkar.com

HABE
HABEren Matrikula eta Bortasun-zerbitzua Erakundeak

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

Helbide honetara bidali behar da:
HABE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz kalea, 3
20018 DONOSTIA

HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:.....
 Zein euskaltegitan ari zara ikasten?.....
 Identifikazio Fiskalaren Kodea / Nortasun-agiria:
 Helbidea: Telefonoa:
 Herra: Posta-kodea: Lurraldea:
 Posta elektronikoa
 HABE aldizkaria jaso nahi dut (2008ko harpidetza: 25 € urtean 10 ale). Euskaltegi bateko ikasle bazara, harpidetza 12,50€
 Honela ordainduko dut:
 HABEren izenean luzaturiko txeke bidez
 Transferentzia bidez (kutxa 2101.0381.01.0003069002)
 Kontu korrante bidez: Bankua edo Aurrezki Kutxa:
 Sukurtsala:K.D.:
 Zenbakia:

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABE aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.

08



10



14



24



30



36



06 GAURGERO

- 2007-2008 ikasturtean 3. maila egiaztatze deialdia
- Donostiako olaturik handiena
- Eduardo Roldan, Candanchuko eski-estazioko zuzendaria: "Eskiaren arrastoak elur gainean lehen aldiz ikusi nituenean, zerbait mugitu zen nire barruan"
- Familia enpresak bultzatzeko katedrea sortu dau EHUK

14 SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Zer dakizu egiten?

23 HAMAIKA TRIKIMAILU

Juan Ignacio Perez Iglesias

24 ELKARRIZKETA

Mariasun Landa: "Bizitzak pentsatzen ez nuen bidetik eraman nau, baina azkenean nahi nuen lekura ailegatu naiz"

27 EUSKARA MUNDUAN

Argentinatar eta uruguaitar euskara-irakaslegaiak Euskal Herrian

30 MUSIKA

Luis Camino: "Nire azken lana, *Dancing Mantras* izeneko diskoa, goitik behera neure kabuz egin dut"

32 KOMIKIA

Numenak: Aita (8. atala)

36 KULTURONTZIA

- "ART IN THE USA" Guggenheim musean
- Argitalpen berriak



Ikasbil atarian ikusgai

387

Testuen/ariketen maila: **1A** **1B** **2** **3** **4**

ERREDAKZIOA:

Eskarne Lopetegi
Esiter Isasa
M^a Ixabel Valcarlos
Ion Imanol Iturriotz
Juan Miguel Gutierrez
Jose Frantzisko Zinkunegi
Josu Goikoetxea



DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Zirrimarra/Truke
(Andoain-Beasain)

AZALEKO ARGAZKIA:
C. Beyreuther

INPRIMATEGIA:
GERTU
Oñati, Gipuzkoa

LEGEZKO GORDAILUA
BI- 2251/81
ISSN: 0212-6788

Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio Orokorra
HABE

www.habe.euskadi.net
Tel. 943 02 26 00
Faxa: 943 02 26 01
e-mail: argitalpenak@habe.org
Harpidetzak: harpidetzak@habe.org



Beti bezala, hainbat iturritatik etorri zaizkigun ohar, galdera eta iradokizunak bildu ditugu zuentzat. Interesgarriak izango zaizkizuelakoan gaude.



Beti sortzen zait zalantza bera jateixe batera joaten naizen bakoitzean. Janaria eskatzera-koan, bi lagunek edo gehiagok nahi badute eskatu janari bera, nola eskatu behar da?.

Adibidez, bi lagunek nahi dituzte babarrunak, edo hiru lagunek legatza... nola esaten da "dos de alubias" edo "tres de merluza"?

Mila esker

Zure galdera jaso eta buelta batzuk eman ondoren, erabaki dugu horrelakoetan, arruntena "babarrunak birentzat" edo "birentzako babarrunak" esatea izaten dela. Era berean, "hirurentzako legatza" edota "legatza hirurentzat" esango genuke. Edozein modutan, eta egoeraren arabera, gerta liteke hain esaldi edo formulazio biribilik erabili ez eta, modu errazean "babarrunak: bi" edota "legatza: hiru" bezalako moldeak erabiltzea. Erantzuna erabilgarria izatea espero dugu.



Me gustaría saber si existen planes para hacer accesibles los cursos de Euskera en Internet en formato "podcast". O si en realidad ya existe este medio. Como residente en Toronto, Canada, encuentro imposible conseguir clases para mis cuatro hijos y para mi misma (nacida en Euskal Herria cuando la lengua vasca estaba prohibida). Encuentro que las nuevas tecnologías pueden ser una gran herramienta para impartir clases de Euskera y una de las mejores y más convenientes son los sistemas mp3. Lecciones descargables de la red a un iPod o similar permitirían estudiar en el metro, coche, paseos, etc. a los que no tenemos euskaltegis o otros medios a nuestra disposición. Desconozco la dificultad de poner en práctica un servicio de este tipo pero, considerando infinidad de radios, televisiones y periódicos ponen mucha de su información a disposición de sus oyentes, telespectadores y lectores utilizando "podcasts", imagino que no debe ser un imposible. Apuesto a que yo y los míos no seríamos los únicos en aprender Euskera por este medio. El diario El Correo tiene en la red un curso –creo que generado por la Universidad de Deusto– que contiene audio para facilitar el aprendizaje de la pronunciación pero no es descargable, lo que exige que uno tenga muchas horas para estar sentado/a delante del ordenador. En cambio si uno compra el material escrito y puede descargar el audio a un aparato de mp3 resulta mucho más fácil de dedicarle más tiempo.

Es una preguntita nada más.

Gracias por cualquier información que puedan facilitarme al respecto.

Un abrazo desde Canada.

Mayte

Lastima da, baina, une honetan ezin dugu podcast bidezko euskara-ikastarorik eskaini. Jakitun gara sistema honek duen ahalmenaz, batez ere zure moduko ikasleentzat, baina, ikastaro hauek diseinatu eta martxan jartzeak lan eskerga eskatzen du eta une honetan bestelako egitasmoek dute gurean lehentasuna. Hala eta guztiz ere, HABEK badu podcast bidezko beste zerbitzu bat www.ikasbil.net atarian aurkituko duzuna. Bertan euskara ikasteko makina bat baliabide aurkituko dituzu, hala nola, ariketak, sekuentzia didaktikoak, idatzizko testuak, audioak eta bideoak, guztiak didaktikoki mailakatuak. Une honetan 2.600 audio-zati baino gehiago aurkituko dituzu, podcast bidez harpidetzeko eta zure iPodera jaisteko eran jarriak. Biltegi hau ia egunero hornitzen dugu, normalean, Euskadi Irratiko emisiotik aukeratutako pasarteekin. Hartara, pasarte hauek gai interesgarrien gainekoak, egunerokotasun handikoak eta euskara-ikasleentzat hizkuntz eredu egokiak eskaintzen dituztenak dira. Aukeratu ondoren, guztiak propio didaktikoki katalogatuta eskaintzen dizkizugu. Zerbitzu honen bidez entzungai asko deskargatuko dituzulakoan, izan ongi.

Komiki hau ikus eta entzuteko, jo helbide honetara: www.ikasbil.net

Komikia



TXo!

Zure txokoa da hau, idatziguzu!

FOROAK.COM - EUSKARAZKO FOROAK

1B Jaio da FOROAK.COM web gunea. Sortzaileek diotenez, euskara zabaltzeko helburuz, guztiz dohainik, edonork bere foroa sor dezake inolako **jakintzarik** gabe, eta dena euskaraz! Ezaguna duzue, bada, blogak.com web orrialdea: bertan blogak sor ditzake erabiltzaileak, euskaraz noski. Berdin-berdin foroak.com-en kasuan: phpBB2-z baliaitutako foroak sortzen dira.



atezainok euskaraz

ATEZAINOK EUSKARAZ LANEAN

2 Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak *Atezainok euskaraz* atera berri du, euskaraz lan egiten laguntzeko liburuxka, atezainek **atezainentzat** egina.

Liburuxkak koaderno-itxura dauka, kiribilduna da, eta ez da kasualitatea, batez ere lanerako tresna izateko asmoarekin jaio baita, praktikoa izan nahian, atezainen laneko mahaiaren gainean zabalik edukitzeko, eta kapitulu bakoitzaren amaieran orrialde zuri bat ere badauka, norberak oharrak idazteko. Liburuaren edukiak zehazteko, atezainen lana aztertu zen. Horrela, liburuak bost atal nagusi dauzka, baina batez ere lehenengo hirurak dira garrantzitsuenak edo potoloenak:

Euskaraz hitz egin

Atezainek jarduera gehienak ahoz egiten dituzte, eta batez ere bi dira nabarmenenak: **harrera egin** (aurrez aurre edota telefonoz) eta **argibideak** eman. Horien inguruan hainbat aholku ematen dira atal honetan.

Euskaraz idatzi

Atezainek idatzi ere egin behar izaten dute. Gehienetan testu laburrak izaten dira, xumeak eta errazak, baina batzuetan **eragin handikoak** ere bai, jendearen aurrean jartzen baitira irakurtzeko. Besteak beste, atezainen eginkizunetan sartzen dira honelakoak idaztea: oharrak eta enkarguak lankideei; errotuluak, karpeten bizkarrak eta inprimakiak; eguneroko agenda; posta elektronikoko mezuak; giltzak identifikatzekoak; eta, azkenik, jendearen aurrean jartzeko kartelak.

Hiztegia

Badira hitz batzuk atezainek maiz erabiltzen dituztenak, lanbideari eta **ohiko eginkizunei** lotuak, eta horiek zerrendatuta ageri dira gaika (ohiko aditzak, erremintak edo tresnak, gremioak edo lanbideak...) eta alfabetoaren arabera; halaber, atezainen laburtzapenak (sigla, ikur, laburdura eta inisialak) leku berezia daukate atal honetan.

Liburuak batez ere praktikoa izan nahi du, erabilgarria. Horregatik, egoera eta adibide gehienak errealak dira, atezainek beraien proposatuak edo jarriak. Gehienetan, gomendioak ematen dira euskarazko jarduna hobetzeko, eta adibide ugari ere badaude. Euskara Errektoreordetzak sarean jarri du liburua. Norbaitek eskuratu nahi izanez gero, jo <http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es> helbidera.

EHUK EUSKARAZKO HIZTEGIA ETA GRAMATIKA INTERNETEN JARRIKO DITU

3 EHUKo Euskara Institutuak Sareko Euskal Gramatika eta Egungo Euskararen hiztegi osoa sarean jarriko ditu 2014. urtean. Hiztegiaren zenbait letra dagoeneko jarrita daude web orrian (www.ehu.es/eeh) Gaur-gaurkoz, F, G eta H letrak daude kontsultarako. Gramatika lantzen datorren hilean hasiko dira, eta lehenbailehen sarean jartzen ahaleginduko dira. Guztira, sei urteko **beharra** izango da, baina emaitzak lehenago ikusten hasiko dira erabiltzaileak.

Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Patxi Goenaga dira proiektuaren zuzendariak. Egitasmoa «guztiz originala» dela nabarmendu dute, ez euskaraz eta ezta munduko beste inongo hizkuntzatan ere ez baitago gramatika eta horrelako hiztegi osorik sarean.

Sareko Euskal Gramatika, gramatika bat baino gehiago, hizkuntzari buruzko entziklopedia izatea nahi dute. Gramatika guztiek bezala, fonetika, fonologia, morfologia eta sintaxiari buruzko deskribapenak jasoko ditu. Horrez gain, lexikografia, hizkuntzaren historia, euskararen egoera eta erabilera-datuak ere bilduko ditu, besteak beste. Sarean kontsultatzeko diseinatutako gramatika **izaki**, testuei grabazioak, mapak eta argazkiak erantsiko dizkiete. «Gaur egungo euskara mintzatuari buruzko informazio zabala izango da, eta historian ere oinarrituko da, gure idazleek idatzi dituzten libururik aipagarrienetako datuak denen eskura jarri», azaldu du Goenagak.



ARGIBIDE.- Azalpen. *Explicación, información.* Explication.

ATEZAIN.- Porterola, conserje, bedel. Portier/ère, concierge.

BEHAR.- Lan. *Trabajo, tarea.* Travail.

ERAGIN HANDIKO.- De grande influencia. De grande influence.

HARRERA EGIN.- Recibir. Accueillir.

IZAKI.- Puesto que es. En étant.

JAKINTZA.- Jakite. *Conocimiento.* Connaissance.

OHIKO EGINKIZUN.- Tarea habitual. *Tâche habituelle.*

Gaurgero

2007-2008 ikasturtean

3. maila egiaztatzeko deialdia



Euskara-mailak egiaztatzeko bi deialdi egongo dira

HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren maila guztiak indarrean jartzeko asmoz, 2007-2008 ikasturtean hainbat aurrerapauso garrantzitsu emango ditu. Hauexek dira erabakiak:

- HABEren asmoa da **2007-2008 ikasturte honetan HEOKaren 3. maila** egiaztatzeko probak deitzea, 1. 2. eta 4. mailak egiaztatzeko probekin batera. Orain arte euskaltegietan izena emandako 3. mailako ikasleek EGA agiria eskuratzeko azterketaren deialdi itxian parte hartzeko aukera zuten. Deialdi berri honek hura ordezkatu du.
- Eusko Jaurlaritza **euskarazko egiaztagirien sistemak baliokidetze-koadro batera biltzeko dekretua** lantzen eta tramitatzen ari da. Horren eraginez, aurki izango dugun testuinguru berrian, oso garrantzitsutzat jotzen da HEOKaren maila guztiak egiaztatze-ko sistema egonkorra osatzea eta eskaintzea euskaltegiko ikasleei.
- Helduen euskalduntzearen sarean euskara ikasten ari diren herritarrek ahalik eta zerbitzurik osoena jaso dezaten, **1., 2., 3. eta 4. mailak egiaztatzeko bigarren deialdia** ere egingo da 2008an. Beraz, lehenengo deialdiko probak maiatzean eta ekainean izango dira –urtero bezala– eta bigarren deialdikoak urrian eta azaroan. Hona hemen egutegia:

Lehen deialdiko egutegia

	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Matrikulaldia	Apirilaren 8tik 17ra	Apirilaren 8tik 17ra	Apirilaren 8tik 17ra	Maiatzaren 15etik 22ra
Onartuen behin-behineko zerrenda	Apirilaren 22an	Apirilaren 22an	Apirilaren 22an	Maiatzaren 26an
Behin betiko zerrenda	Maiatzaren 5ean	Maiatzaren 5ean	Maiatzaren 5ean	Ekainaren 4an
Proba idatzia	Maiatzaren 17an: Goizeko 9:00etan	Maiatzaren 17an: Goizeko 11:30ean	Maiatzaren 24an: Goizeko 9:00etan	Ekainaren 14an: Goizeko 9:00etan
Behin-behineko emaitzak	Ekainaren 13an	Ekainaren 13an	Ekainaren 13an	Ekainaren 26an
Ahozko proba	Ekainaren 18, 19, 20 eta 21ean	Ekainaren 18, 19, 20 eta 21ean	Ekainaren 20, 21, 27 eta 28an	Uztailaren 5ean
Behin-behineko emaitzak	Uztailaren 11n	Uztailaren 11n	Uztailaren 11n	Uztailaren 11n
Emaitza orokorrak	Uztailaren 18an	Uztailaren 18an	Uztailaren 18an	Uztailaren 18an

Bigarren deialdiko egutegia

	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Matrikulaldia	Irailaren 10etik 15era	Irailaren 10etik 15era	Irailaren 10etik 15era	Irailaren 10etik 15era
Onartuen behin-behineko zerrenda	Irailaren 17an	Irailaren 17an	Irailaren 17an	Irailaren 17an
Behin betiko zerrenda	Irailaren 24an	Irailaren 24an	Irailaren 24an	Irailaren 24an
Proba idatzia	Urriaren 4an: Goizeko 9:00etan	Urriaren 4an: Goizeko 11:30ean	Urriaren 11n: Goizeko 9:00etan	Urriaren 11n: Goizeko 9:00etan
Behin-behineko emaitzak	Urriaren 31n	Urriaren 31n	Urriaren 31n	Urriaren 31n
Ahozko proba	Azaroaren 13, 14, 15ean	Azaroaren 13, 14, 15ean	Azaroaren 20, 21 eta 22an	Azaroaren 22an
Behin-behineko emaitzak	Abenduaren 4an	Abenduaren 4an	Abenduaren 4an	Abenduaren 4an
Emaitza orokorrak	Abenduaren 11n	Abenduaren 11n	Abenduaren 11n	Abenduaren 11n



3. mailako proba

Aurrerapauso nagusienetako bat, lehen esan bezala, 3. mailaren egiaztatze-deialdia dugu, EGA agiria lortzeko azterketa ordezkatu duena. Maila honetako ikasleei zer eskatuko zaien jakiteko, hona hemen 3. mailako proba nolakoa izango den azalduko dizun testua:

Proba idatzia

Irakurmena

Emandako testua edo testuak irakurri ondoren, azterketariak zenbait galderari erantzun beharko die. Horien bidez, testuaren esanahi orokorra ulertzen duela frogatu du, ideia nagusia nahiz bigarren mailakoak edo xehetasunak, edota espresuki testuan adierazten ez diren ideiak.

Ariketak honelakoak izan daitezke: aukera anitzeko galderak, erantzun laburrekoak, egia/gezurra erakoak, testu zatiei dagozkien ideiak aukeratu, lotura egokiak egin, testua ordenatu, laburtu, ideiak edota paragrafoak lotu.

Zati honek 10 puntu izango ditu denera/gutxienez, 5. Proba honen iraupena **45 minutu** ingurukoa izango da.

Gramatika eta hiztegia

Ikasleari hainbat testu emango zaizkio irakurtzeko. Testu horiek sintaxiaren eta lexikoaren erabilera neurtzeko izango dira.

Hainbat egiteko mota erabiliko da: testuan hitzen sinonimok kokatu, aukera anitzeko bidez lexikoa aukeratu, hitz eratorriak eta elkartuak testuan kokatu, aukera anitzen bidez egitura sintaktikoak osatu, esaldi baliokideak sortu edota egitura koherenteak aukeratu testua osatzeko.

Zati honek 10 puntu izango ditu denera/gutxienez, 5. Proba honen iraupena **25 minutu** ingurukoa izango da.

Idazmena

Azterketariak gutxienez 300 hitzeko testu bat edo 180 hitzeko bi testu idatzi beharko ditu. Hainbat idatzi mota gauza ditzake: iritzi-artikuluak, gutuna, txostena, proposamena, laburpena, eskaera, informazio-orria... Eskatuko zaion egitekoaren egoera, gaia, testu-generoa, erabilera-esparrua, enuntziatzailearen eta hartzailearen rola eta xede komunikatiboa zehaztuko zaizkio.

Zati honek gehienez 30 puntu izango ditu eta gainditzeko 15 puntu lortu beharko ditu. Proba honen iraupena ordubete eta hamabost minutukoa izango da.

Azterketa idatziak **2 ordu eta 30 minutu** iraungo du, entzumena neurtzen duen ariketa egiteko eta instrukzioak irakurtzeko behar den denbora kontuan izan gabe.

Ahozko proba

Entzumena:

Azterketariak kultura orokorreko gaien inguruan entzungo dituen testuen ulermena frogatu beharko du, egingo zaizkion zenbait galderari erantzunez. Entzungaia testu bakarra izan liteke edo zenbait testu labur.

Testuko ideia nagusia, informazio garrantzitsua edota xehetasunak ulertu beharko ditu, informazioa eta iritzia bereizi edo ondorioak atera.

Hainbat egiteko mota erabil daitezke: aukera anitzekoak, egia/gezurra erakoak, erantzun laburrekoak, esaldiak osatzekoak, taulak osatzekoak edo loturak egitekoak.

Zati honek 20 puntu izango ditu denera/gutxienez, 10. Proba honen iraupena **25 minutu** ingurukoa izango da, gehienez.

Mintzamena:

Azterketariak elkarrizketa bat izango du aztertzaileekin edo beste azterketari batekin.

Probak bi atal izango ditu:

- *Aurrez prestatutako egiteko bat gauzatzea.*

Aztertzaileek gai bat eskainiko diote azterketariari presta dezan. Testu aipamen bat, zenbait testu aipamen, elementu grafikoak, irudiak... eman dakizkioke azterketariari egiteko prestatzeko.

- *Argazki edo beste elementu grafikoen baliatuz, bat-bateko elkarrizketa aztertzaileekin edo beste azterketari batekin.*

Azterketariak 20 minutu izango ditu azaldu beharreko gaia prestatzeko, eta aztertzaileen aurrean **hamar bat minututan hitz egitea eskatuko zaio**, bost bat minutu ariketa bakoitzeko. ■

Testua: Oihana Prado (Kazeta5)
Argazki-irudiak: Cloud 9 estudioa



Donostiako olaturik handiena

③ *Donostian olatu erraldoi bat egiteko egitasmoaren berri eman zenetik, eztabaida ugari sortu da biztanleen artean; hiritarrek eta gizarte-eragileek iritzi ezberdinak dituzte asmo honen inguruan, baina inork ez du zalantzan jartzen horrek guztiak sortu duen jakin-mina. Zenbaitzuen ustetan, ekimen hauek ezinbestekoak dira Donostiarentzat, gaur egungo hiriarteko lehian parte hartu nahi badu. Proiektuak city marketing (hiri-marketinga) delakoa egiten lagunduko luke, kanpoan izango duen eragina itzela izango baita. Beste batzuk, berriz, kostuaren beldur dira, hiriak dituen beste lehentasun batzuk aipatzen dituzte, eta eraikinaren artifizialtasuna ere nabarmentzen dute. Nolanahi ere, olatu erraldoi honetatik gertuago edo urrunago egonda ere, adi-adi daude guztiak, azken erabakiaren eta xehetasun guztiak noiz jakingo zain.*

Egitasmo honen arabera, Zurriola hondartzak Donostiako Kursoal jauregiaren aurrean inoiz ikusi duen olaturik handiena izango luke 2009ko udaberrian. Sustatzaileek hainbat argudio erabili dituzte beren asmoa aurkezteko. Batetik, izango lukeen oihartzuna dela eta, Donostiaren irudi berritzailearen sinbolo bilakatuko litzatekeela; eta bestetik, teknologia berrien eta energia iraunkorren inguruko gogoeta egitera bultzatuko litzatekeela donostiarrak, itsasoan jarriko duten buia batek sortutako energiak hornituko bailuke olatu erraldoia. Proiektuak eztabaida eta iritzi ugari sortu ditu, eta aurrekontua erabat zehaztu gabe dagoen arren, aurrera aterako dela uste dute antolatzaileek.

Olatu erraldoiak 230 metro luze, 40 metro zabal eta Kursoal jauregiak adinako altuera izango du, eta Moneok eraikitako kuboaren aurrean ikusi ahal izango dugu, egunero, hiru hilabetez. Olatu erraldoi hau artifiziala izango da, ordea. Proiektua Bartzelonako Cloud 9 estudioko Enric Ruiz Geli arkitekto katalanak jarri zuen abian duela hilabete batzuk, Promueve enpresa gipuzkoarrarekin batera. Donostiaren irudi berritzaileagoa eskaintzeko asmoz, bien artean *Energy Attack* izeneko proiektua sortu zuten, eta horren barruan, *Once... a wave* olatu erraldoiaren ideia bururatu zitzaion. Erakunde parte-hartzaileek ez dute oraindik behin-betiko erabakirik hartu: Kursoaleko administrazio-kontseiluarekin batera aurrekontua erabat zehazteko zain daude.

Sustatzaileek diotenez, turismoaren alorrean izango duen eraginaz gain, Donostiak duen kanpo-irudia indartzeko aukera emango luke olatu erraldoiak, Donostia eta Gipuzkoa berritzailearen irudi bihurtuko litzatekeelako. Baina, kanpo-oihartzuna sortzeaz gain, **energia berriztagarrien** eta **iraunkortasunaren** aldeko apustua ere egingo du eraikuntzak.





Egitasmoaren nondik norakoak

*Energy Attack*eko parte-hartzaileek olatuaren proiektua pentsatu bezain laster, Kursaal eraikina etorri zitzairen burura, 2009an hamargarren urteurrena egingo duela kontuan hartuz. Laster lortu zuten kuboan **kudeatzaile** ohiaren, José Miguel Ayerzaren, laguntza. Hasiera batean, helburua Donostiaren oihartzuna handitu eta komunikabideak erakartzea izan zen. Spencer Tunick argazkilariak Kursaalaren egindako argazkiak ekarri zituzten gogora, erakundeek egindako inbertsioa hogeitaz bidertu zuen oihartzuna sortu baitzuen Tunick-en etorrerak.

Berrikuntzaren inguruan lan egiten duten hainbat enpresa gipuzkoarrekin elkarrizketa ugari izan ondoren, olatuaren proiektua handitzen hasi zen: turismoan eragina izango zuen ekintza izateaz gain, teknologia berriak eta energia iraunkorrak erabiliko zituen tresna ere egin nahi zutela pentsatu zuten. Eta halaxe sortu zuten *Energy Attack*.

Asmoak harrera ona izan du orain arte, eta espainiar enpresa garrantzitsu askok ekimenean parte hartzeko interesa azaldu dute dagoeneko. Dirudienez, eraikiko den olatuaz gain, punta-puntako energia eta arkitekturari buruzko hiru eguneko kongresua egingo bailitzateke aldi berean, energia berrien aditu nagusien parte-hartzearekin. Jeremy Rifkin eta Michael Braungart izango lirateke hizlarietako batzuk, eta hauekin batera, duela gutxi Bakearen Nobel Saria irabazi duen Al Gore. Kultur arloko pertsonaia ospetsuak ere hartuko lituzke ekitaldiak, Bono abeslaria eta Pedro Almodovar zinegilea, esaterako.

Olatuak izango duen aurrekontua zehazteke dago oraindik, baina milioika euro kostatuko dela adierazi dute antolatzaileek. Dirudienez, aurrekontu osoaren %80 inguru **sustatzaile** pribatuen batek hartuko luke bere gain. Gainontzekoa, berriz, tokiko erakundeek emango lukete. ■

2 Energia eta eztabaida sortzen duen olatua



Hona hemen olatuaren asmoak eragin dituen hainbat iritzi:

- “Berez olatuak badauden tokian, zertarako sortu beste bat?”.
- “Donostiari ikaragarritzko mesedea egingo dio: honelako ideiek hiria berritu egiten dute”.
- “Nahiago nuke dirua beste zerbaitetan gastatuko balute. Donostiak badu zertan hobetua bestela ere”.
- “Guggenheim-ekin beste hainbeste gertatu zela gogoratzen zarete? Eta orain nork jartzen du zalantzan museoa?”
- “Eskerrak baden ideia ausartak aurrera ateratzeko jendea!”
- “Energia berriztagarriek behar duten sona aurkituko du Donostian”.
- “Olatua? Hau tsunami bat da. Hiria desegingo duena”.

Koka itzazu aldeko eta aurkako iritziak eta, gero, zeurea erantsi:

AURKAKO IRITZIAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Nire iritzia:

.....

ALDEKO IRITZIAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Nire iritzia:

.....

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera

BUIA.- *Boya.* Bouée.

EGITASMO.- *Proyecto.* Projet.

EKIMEN.- *Iniciativa.* Initiative.

ENERGIA BERRIZTAGARRI.- *Energia renovable.* Énergie renouvelable.

ERRALDOI.- *Gigante.* Géant/e.

GIZARTE-ERAGILE.- *Agente social.* Agent social.

HORNITU.- *Abastecer, dotar.* Approvisionner.

IRAUNKORTASUN.- *Sostenibilidad.* Durabilité.

ITZEL.- *Ikaragarria.* Enorme. Enorme.

JAKIN-MIN.- *Curiosidad.* Curiosité.

KUDEATZAILE.- *Gestor/a.* Gérant/e.

SUSTATZAILE.- *Promotor/a.* Promoteur/trice.

XEHETASUN.- *Detalle.* Détail.

Olatua hornitzeko energia itsasotik lortzea da helburua.

Horretarako, 350 kilowatteko potentzia emateko gai den buia jarri nahi da Donostiako kostaldean.

Testua: Oihana Prado (Kazeta5)

Eduardo Roldan, Candanchuko eski-estazioko zuzendaria:

“Eskiaren arrastoak elur gainean lehen aldiz ikusi nituenean, zerbait mugitu zen nire barruan”



2 Eski garaian gaude bete-betean, elurraz gozatzeko garaian, hain zuzen. Eta benetan ikaragarri gozaten duen pertsona batengana jo dugu, berak elurrarekin sentitzen duena konta diezagun. Hona hemen Eduardo Roldan, Candanchuko eski-estazioko zuzendariak azaldu diguna:



T xiki-txikitatik **txunditu** zuen elurrak. Eduardo Roldan donostiarrak urte mordo darama Candanchuko eski-estazioan lanean. Hemeretzi urte zituela iritsi eta mota askotako lanetan aritu zen hasieran. Egun, eski-estazioko zuzendari eta neguko kirolen Espainiako Federazioko presidente da. Eския da bere bizitzaren **ardatz**, baina elurrak **erakarri** zuen lehenago. “Eskiarekin baino lehen, elurrarekin

maitemindu nintzen. Donostian gutxitan egiten du elurra, baina **mirakulua** gertatzen zen gutxietan hipnotizatuta gelditzen nintzen, teiatuak zuriz margotzen zituzten elur-malutegi begira”.


Gaur egun asko dira eskia praktikatzen dutenak, baina Eduardo Roldan gaztea zenean, ez zen oso kirol ezaguna. Zaletasuna konturatu gabe piztu zitzaioa aitortzen du: “Mendizaleen artean hazi nintzen; gurasoak eta osaba-izebak mendiari lotuta bizi ziren. Cristi izeba gogoratzen dut bereziki, bera izan baitzen nire zaletasunaren errudun nagusietako bat. Eския, motxilak eta botak ikusten nituen etxean eta oharkabean, mundu horretan sartu nintzen”.

Eskiatzen hasi zeneko urteak gogoratzean irribarre malenkoniatsua ateratzen zaio, izan ere, oroitzapen politak gordetzen baititu. “Lehen aldiz eskiaren **arrastoak** elur gainean ikusi nituenean, zerbait mugitu zen nire barruan. Hamaika urte nituen eta sentsazio magiko bat sentitu nuen. Mutil koxkorra nintzela, asteburuetan Otzaurtera eta Aralarrera joaten ginenean, goizeko ordu txikitik. Trena goizeko seieta ateratzen zen Donostiatik eta bostetan meza entzuten genuen geltokian bertan. Eския nire bizitzaren ardatz bilakatu zen pixkanaka eta irteera haieran eskiaren munduan sartuta zegoen jendea ezagutzeko aukera izan nuen: besteak beste, Adolfo Begiristain **zena**, Azkarate anaiak, Juan Laredo eta Carmelo Domecq **iraupen-lasterkariak** eta Arrazola doktorea gogoratzen ditut bereziki. Haiei esker, Candanchu ezagutu nuen. Sosik gabe nengoen eta haiek gonbidatu egiten ninduten. Pribilegiatua izan nintzen”.

Zaletasuna serioago bilakatzen hasi zenean, berriz, txapelketetan parte hartzen hasi zen. Garai hartan, **lehiakide** gutxi zituen Roldanek eta emaitza onak lortu zituen laster. “Txapelketa garrantzitsu asko irabazi nituen, besteak beste, Euskadiko eta Nafarroako txapeldu izan nintzen Conchita Velascorrekina batera”, gogoratzen du.

Txapelketetan **buru-belarri** sartuta zegoenean, berriz, **sol-dadutza** egiteko deia jaso zuen. Cadizera bidali zuten, baina hori ez zen oztopo izan eskiatzen jarraitzeko. “Amateur nintzela, Cadizera joan behar izan nuen. Bertan, sei hilabetez egon nintzen eta gero, Madrilera bidali ninduten, baina ez pentsa eskia alde batera utzi nuenik, ezta gutxiago ere! Guztia dantzan jarri eta nazioarteko eski-lehiaketetan parte hartzea lortu nuen”. Dibertitzeaz gain, ikasteko aukera ere izan zuen eta eski-monitore izateko titulua atera zuen.

Eduardo Roldan, Candanchuko eski-estazioko zuzendaria:
 “Eskiaren arrastoak elur gainean lehen aldiz ikusi nituenean, zerbait mugitu zen nire barruan”



- ARDATZ.**- Centro, eje. Axe.
- ARRASTO.**- Huella. Trace, vestige.
- BURU-BELARRI.**- Con afán. Totalément.
- ELUR-JAUSI.**- Alud de nieve. Avalanche de neige.
- ERAKARRI.**- Atraer. Attirer.
- EZUSTEKO.**- Inesperado/a. Imprévu/e.
- IRAUPEN-LASTERKARI.**- Fondista, esquiador/a de fondo. Skieur/euse de fond.
- LEHIAKIDE.**- Competidor/a. Rival.
- MIRAKULU.**- Mirari. Milagro. Miracle.
- SOLDADUTZA.**- Servicio militar. Service militaire.
- TXUNDITU.**- Maravillar. Surprendre.
- ZENDU.**- Hil. Morir. Mourir.

◀ ZENA ▶

Soldadutza bukatu zuenean, bere jaioterrira itzuli zen, Donostiara, hain zuzen. Baina denbora gutxi gelditu zen hiriburuan. **Ezuste**ko gertakari batek Candanchura bidali zuen bueltan: “Soldadutza amaitzean, Candanchun Espainiako Txapelketan parte hartu eta hanka hautsi nuen. Ondorioz, Jakako ospitalean denbora dezente igaro behar izan nuen. Eskiatzaile asko ezagutu nituen Jakan eta handik denbora batera, bertan gelditzea erabaki nuen. Hasieran, oso lan ezberdinetan aritu nintzen: hotelaren administrazioan, irakasle gisa... Behar zen guztia egiten nuen”. Handik urte gutxira Austriara abiatu zen, Tirol alde-
 ra. Bere heziketa osatzeko asmoz joan zen eta lau urte eman zituen leku eder hartan. “Oso ondo integratu nintzen, hasieratik austriar sentitu nintzen eta geroztik, nire bigarren etxea da Austria”.

Orduetik hona, Candanchu izan da bere bizilekua. Hasieran aipatu bezala, hemeretzi urte zituenean alde egin zuen Donostiatik, baina, tarteka, itzuli egiten da lagunak ikustera. Aitortzen duenez, portuko jatetxeetako sardinen eta Kontxako paseoen falta sumatzen du, batez ere. Candanchun, ordea, behar duen guztia dauka: eskiatzeko aukera, alegia. Izan ere, urteen poderioz, eskiarekiko zale-
 tasuna areagotu egin zaiola azaltzen du: “Gero eta gehiago gustatzen zait eskiatzea eta urtetik urtera gehiago disfrutatzen dut. Ez dago adinik eskiatzeko, ezta ikasteko ere. 78 urteko ikasle bat izan nuen eta inork baino gehiago gozatzen zuen. On Jose zuen izena eta 88 urtera arte jarraitu zuen eskiatzen”.

Baina, une goxoak ez ezik, egoera latzak ere bizi izan ditu. “Larriena, 2000. urtean gertatu zen, Austrian. Ordu laurden bat lehenago hartu genuen trenak su hartu eta 186 pertsona **zendu** ziren. 1985ean Candanchun izandako **elur-jausia** ere ez dut ahaztuko, 6 pertsona hil baitziren”. ■

Testuan beste kolore batez azpimarratu nahi izan dugun molde bati helduko diogu.

Irakur itzazu beste hainbat adibide:

- Bere aita zenak erakutsi zion pilotan*
- Gure ama zenak oso ondo zekien sukaldean*
- Mikelen osaba zenak lortu zuen lehen aldiz sari hau irabaztea*
- Gure Joxe zenak esaten zuen hori beti*

Adibideak irakurrita, zein da, zure ustez, **zen(a)** moldearen esanahia?

- a.- maitea
- b.- hildakoa, defuntua
- c.- ordezkoa

2 Testuan irakurri ahal izan dituzun hainbat hitz/aditz eta gaiarekin lotura duten beste zenbait ekarri ditugu hona, baina bidean, nahastu egin zaizkigu. Jarriko al duzu nor bere tokian?

Gaztelaniaz	Euskaraz	Frantsesez
Copo de nieve	Flocon de neige
Alud	Avalanche
Nevar	Neiger
Aguanieve	Neige fondue
Ambiente nevado	Atmosphère neigeuse
Nevada	Chute de neige

*Elur-giroa, Elurte/elurra egin, Elurketa/elurtea,
 Elur-maluta, Elur-jausia, Elur bustia*

Zalantzarik baduzu, jo 45. orrialdera.

Testua: Aitzol Uriarte

Familia enpresak bultzatzeko katedrea sortu dau EHUK



③ Lurraldeari lotuago dagozan enpresa honeen jarraipena bermatu gura dau, **oinordekotzaren** momentuan desagertzeko dauken joerea murrizteagaz batera.

Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, Familia Enpresaren katedrea sortu barri da. Arturo Rodríguez, Finantza Ekonomia eta Kontabilitateko Katedradunaren zuzendaritzapean. Blanca Arosa, Amaia Maseda, María Saiz eta Txomin Iturralde irakasleek osatzen dabe ekimen honetan buru belarri sartuta dagoan taldea. Katedrea otsailean martxan jarri ostean, era honetako enpresen jarraipena **bermatu** gura dabe, lurraldeari lotuago dagozan enpresak diralako, aberastasuna berton sortu eta modu zabalagoan banatuz.

Familia mailako enpresek pisu nabarmena dauke ekonomiaren baitan. Itxura baten, eta gaia eza-gutu ezean, hasieran pentsatu leitekena baino askoz haundiagoa. Garrantzia hori erakusteko, datuoi erreparatzea baino ez dago: **enpresen %80 familia mailakoak dira, Barne Produktu Gordiaren %70 suposatzen dabe eta enpleguaren %75.**

Espainiako Estatuan badagoz martxan era honetako beste hogeitik gora katedra, Arturo Rodríguez azaltzen dauanez, "hemen Bizkaiko Foru Aldundia izan zan Unibertsitatera zuzendu zana katedra hau bultzatu eta osorik finantzatzeko". Hiru lan **esparru** nagusi daukoz katedreak. Batetik, *Familia Enpresaren Zuzendaritza eta Kudeaketa* deritzon irakasgaia dago, EHUKo Bilboko Sarrikoko Fakultatean, otsailetik aurrera martxan. Bestetik, familia-enpresa txiki eta **ertainekaz** egingo daben **beharra** dago, "eurekaz hartu-emonean jarri gura dogu eta euren beharrak aztertu gura doguz, ondoen egokitzen jaken formazioa eskeintzeko". Hirugarren atal batek inbestigazioa landuko dau, Bizkaian familia mailako enpresearen egoera zein dan identifikatzeko, edo holako enpresetan izaten diran zuzendaritza eta kudeaketa arazoak aztertzeko.

Ezkerretik eskuinera: Arturo Rodríguez, Txomin Iturralde, Amaia Maseda, María Saiz eta Blanca Arosa. (Argazkia: Aitzol Uriarte)



"Ugazaben seme-alabak beharren hasten diranean zaila egiten jake ikastea, gogorregi edo gozoegi tratatzeko arriskua dagoelako, horregaitik sarritan familia mailako enpresek seme-alabak trukutzen dabez".



“Familia positiboa da enpresarentzat, baina era berean zailtasuna be bada, arazoak esparru batetik bestera eroaten diralako”



BEHAR.- Lana. *Trabajo. Travail.*
BEHARGIN.-
BELAUNALDI.- *Generación. Génération.*
BERMATU.- *Garantizar. Garantir.*
ERTAIN.- *Mediano/a. Moyen/enne.*
ESPARRU.- *Campo. Domaine.*
HUTSUNE.- *Vacío. Manque, carence.*
KUDEAKETA.- *Gestión. Gestion.*
OINORDEKO.-
OINORDEKOTZA.- *Primogenitura. Primogéniture.*

Lurraldearekiko loturea

Familia mailako enpresek lurraldearekiko dauken loturea azpimarratzen dau irakasle taldeak, “nire ustez hori da Aldundiak enpresa honeek lagundu gura izateko arrazoa”, nabarmen-tzen dau Rodríguezek, “lurraldeagazko loturea dala eta, aberastasuna eta enplegua bultzatzen dira holako enpresei jarraipena emon ezkerro”.

Enpresa txikien inguruko informazioan **hutsunea** nabaritzen dabe, batik bat hamar **beharginetik** beherako enpresen kasuan. Zulo hori betetzeko, inkestea egingo dabe, eurei buruzko informaziorik ez dagoen enpresa horreetara zuzenduz. Enpresa txiki horreen arazoak ezagututa, konpontzen lagunduko dabela uste dabe, etorkizunean jarraipena euki ahal izan daien.

Horregaz guztiagaz batera difusino lana egingo dabe, jardunaldiak antolatuz eta behar izanez gero, enpresa konkretuek behar konkretua egiteko. Euren web gunean (www.ehu.es/catedraefamiliar) foro bat sortuko dabe horretarako, familia enpresei euren esperientziak trukatu ahal izateko aukerea emonez.

Familia enpresearen izakerea

Ez dago kontsentsu zabalik familia enpresea zer dan zehazterakoan. Baina badagoz hiru kriterio nagusi: familia batek edo gehiagok enpresearen jabetzea eta kontrola eukitea; enpresearen **kudeaketan** familiak parte hartze zuzena eukitea; eta bigarren **belaunaldiek** enpreseari jarraipena emotea. Hirugarren puntu hau da enpreseari familia izaerea emoten deutsona. Norbanako batek sorturiko enpresea ez da oraindino familia mailakoa, baina izan leiteke, bere ondorengoek jarraipena emoten badautsie.

Ondorengo belaunaldi horreen formazioan behar egiteko asmoa dauko katedreak. Izan be, kasu asko eta askotan enpresea sortzen dauan pertsonak erretiroa hartzen dauanean enpresea desagertu egiten da, edo saldu egiten dabe. **Oinordekoei** pasatzeko garaian desagertzeko joera da eta, hain zuzen, familia enpresen ezaugarri nagusietariko bat.

Unibertsitatea ezeze, erakunde gehiago be badagoz familia enpresearen inguruan behar egiten: Merkataritza Ganbarea, Bizkaiko Enpresarien Elkarte, Aldundia edo familia enpresak biltzen dauazan erakunde bera. Amaia Masedak dinoanez, katedrearen helburua erreferentea izatea da, esparru honetan eginiko ahalegin dispertsoak alkartu eta indarrak batzea. ■

EHUNEKOAK

Beste kolore batez adieraz dugun esaldiari erreparatu:

(...) enpresen %80 familia mailakoak dira, Barne Produktu Gordinaren %70 suposatzen dabe eta enpleguaren %75.

Adibidea ikusita, zein da, zure ustez, arau egokia?

- a.- Artikulurik gabe deklinatu behar dira ehunekoak
- b.- Artikuluarekin deklinatu behar dira ehunekoak

3



Konturatuko zarenez, gure hiztegian bi hitz utzi ditugu itzuli gabe: **BEHARGIN** eta **OINORDEKO**, hain zuzen. Idatziko al dituzu zuk gaztelaniazko eta frantsezko adierak horretarako utzi ditugun hutsuneetan?

ZER DAKIZU EGITEN?



1A Sekuentzia honetan zer egiten dakigun esaten ikasiko dugu, hau da, zein diren gure trebetasunak edo abildadeak gauzak egiteko, zertan garen onak eta zertan ez.

Horregatik, sekuentzian zehar hainbat adibide ikusi eta gero, bukaeran eskainiko dizugun Interneteko orrialde batean zeure buruaren deskribapena txertatu beharko duzu, beste hainbatena eredu hartuta, egiten dakizuna azalduz.

[Sekuentzia Didaktikoa]



Helburua gauzatzeko, hauek izango dira egingo dituzun lanak:

- Eskainiko dizkizugun hainbat trebetasunen artean, zuk egiten dakizkizunak aukeratuko dituzu.
- Egiten dakizunaren gaineko hainbat esaldi idatziko dituzu, horretarako euskaraz dugun molde bat erabiliz: **-t(z)en jakin**.
- Pertsonaia famatu batzuek egiten dakitena aurreikusiko duzu.
- Pertsonaia horiek beraiek benetan egiten dakitena adieraziko duzu, bakoitzaren inguruko informazio-testuaren laguntzaz.
- Zuk egiten dakizuna pertsonaia famatuek egiten dakitenarekin konparatuko duzu. Horretarako, hainbat molde erabiliko dituzu, hala nola: **ere bai, berriz, ordea, adina, bezain**.
- Egiten dakizkizun gauza guztiak zerrendatuko dituzu, ahalik eta ekintza gehien erantsiz. Horretarako, **Horrezaz gain..., Gainera... -t(z)ez gain, -z gain, -z aparte, ...ez ezik... ere...** moldeak erabiliko dituzu.
- Interneteko iragarki-taula bateko eskaintzak irakurriko dituzu, jendeak lanerako egiten duen eskaintza eredutzat hartuz.
- Iragarki-taula horretarako zeure buruari buruzko eskaintza idatziko duzu.

1 OSO ONDO DAKIT

Segidan, zerrenda luze samarra aurkituko duzu. Arretaz irakurri eta esaguzu: Zuk zer dakizu egiten gauza hauen artetik? Jarri, kasu bakoitzean, egokia iruditzen zaizun zenbakia:

- 1.- Oso ondo
- 2.- Jakin badakit, baina ez oso ondo
- 3.- Erdipurdi
- 4.- Ez dakit

	1	2	3	4
1. Otorduak prestatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Musika-tresnaren bat jotzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Autoa gidatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Igeri egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Neureaz gain, beste hizkuntzaren batean hitz egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Bizikletan ibiltzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Haur bati fardela aldatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Fotokopiagailua desataskatzen eta kopiak ateratzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Inprimagailuari tonerra aldatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10. Etxeko garbigailua martxan jartzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11. Ur azpian igeri egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12. Etxeko bideoa programatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13. Futbolean jolasten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14. Musean jolasten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15. Internet sarean nabigatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16. Txistek kontatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17. Ordenagailuko hainbat programarekin lan egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18. Landareak behar bezala zaintzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19. Belarra moztzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20. Pilotan egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
21. Jendaurrean hitz egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22. Ipuinak idazten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23. Marrazten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24. Antzezten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25. Argazkiak ateratzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26. Hegazkinak pilotatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27. Lorategiak diseinatzen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28. Aurkezle-lanak egiten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29. Animaliak hazten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30. Irakasten	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31. Besterik: ✍️.....	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>





Saia zaitetz aukeratu dituzunetatik BOST ekintza esaldi bidez adierazten.
Esaterako: *Nik oso ondo mozten dut belarra, baina ez dakit txisteak kontatzen*
Badakit bai etxeko garbigailua martxan jartzen, bai otorduak prestatzen
Ez dakit ez antzezten, ez marrazten.

Badakit..... baina, ez dakit.

Badakit bai....., bai.....

Ez dakit ez....., ez.....

Hemen idatzi zeureak:

Nik...

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

2 FAMATUEN TREBETASUNAK

Pertsonaia ezagun batzuek egiten dakitena ikusiko dugu orain. Baina, informazioa jaso baino lehen, aurreikuspena egiten saiatuko gara. Ba al dakizu zuk zer dakiten egiten eta zer ez?

Idatz ezazu bakoitzaren ondoan zuk uste duzuna. (Kontuan izan pertsona berak gauza bat baino gehiago egiten jakin dezakeela):

- 1.- John Travolta
- 2.- Iñigo Segurola
- 3.- Yolanda Alzola
- 4.- Eva Arguiñano
- 5.- Luis Camino
- 6.- Imanol Agirre

- a) Antzezten
- b) Telebista-saioak aurkezten
- c) Postreak prestatzen
- d) Perkusiozko musika-tresnak jotzen
- e) Pilotan egiten
- f) Lorategiak diseinatzen

Erantzuna:
1.- a
2.- b/f
3.- a/b
4.- b/c
5.- d
6.- e

Horietaz gain, beste hainbat gauza ere badakite egiten pertsonaia hauek, hona hemen:

1. Haurrentzako ipuinak idazten
2. Ingelesez hitz egiten
3. Hegazkinak pilotatzen
4. Txerriak hazten
5. Eskolak ematen
6. Telebista-saioak aurkezten

Idatz ezazu bakoitzaren ondoan dagokion pertsonaren izena.

Erantzunak:
1.- Yolanda Alzola
2.- Luis Camino
3.- John Travolta
4.- Imanol Agirre
5.- Iñigo Segurola/Eva Arguiñano
6.- Iñigo Segurola/Eva Arguiñano



Zeure aurreikuspenak zuzenak izan diren ala ez jakiteko, hona hemen pertsonaia bakoitzaren inguruko zertzelada batzuk:



John Travolta

John Joseph Travoltanate 1954an jaio zen AEBetako New Jerseyen. Irlandar eta italiar jatorriko aktore estatubatuar hau ezagutzera eman zen hainbat filmi esker, aipagarrienak: *Saturday Night Fever* (Larunbat gaueko sukarra) eta *Grease* (Brillantina).

Aktore **izateaz gain**, hegazkin pilotatzen **ere badaki** eta bost hegazkin ditu, besteak beste 707 Boeing bat.

Opor-etxe bat du Maineko Islesboro-n.



Iñigo Segurola

Iñigo Segurola Donostian jaio zen 1967an. Eskoziako Edinburgoko Unibertsitatean paisaia-arkitekto ikasketak burutu eta gero *LUR Paisajistik* izeneko estudioa sortu zuen, lorategi publiko eta pribatuak diseinatzea helburu duena, hain zuzen ere.

Gainera, Irungo Kunsthal eskolan irakasle da Iñigo eta hitzaldi ugari ematen ditu paisaiaren diseinuaren gainean. Bere zaletasunik handiena lorezaintza da eta ezaguna da, batez ere, 1996tik telebistako BRICOMANIA saioan parte hartzen duelako.



Eva Arguiñano

16 urte zituela hasi zen lanean Zarauzko Karlos Arguiñanoren jatetxean, gozogintza-laguntzaile lanetan. Telebistan egin duen ibilbidea oso lotuta egon da beti bere anaiak egindakoari. Gaur egun hainbat lan egiten ditu batera: aipatu jatetxean gozogintza-buru da, irakasle **ere bada** Aiala Sukaldaritza-Eskolan, hainbat liburu eman ditu argitara eta "Hoy cocinas tú" telebista-saioan **ere** parte hartzen du.



Yolanda Alzola

1970ean jaio zen Gernikan. Arte Ederrak ikasi eta 1992an telebistan hasi zen lanean, haurrentzako saio batean. Zenbait film eta telebista-saiotan hartu du parte eta duela gutxi *Zer izan nahi du Maritxuk* izeneko haurrentzako liburua argitaratu du, Ibaizabal argitaletxearen eskutik. Liburua idatzi **ez ezik**, ilustrazioak **ere** egin ditu Yolandak, collage teknika erabiliz.



Luis Camino

Gaur egun Indian bizi den donostiar perkusionista. 1978an hasi zuen bere ibilbide profesionala, *Izukaitz* taldearekin. Gerora, *21 Japonesas* taldeko partaide izan zen, Txetxo Bengoetxea eta Alfredo Beristarainekin batera. Amaia Zubiria, Imanol, Mecano, Javier Muguruza, Celtas Cortos, Tapia eta Leturia edota Barricada taldeekin lan egin du. Bere azken lana, *Dancing Mantras*, Indian eman du argitara. Bere lan berrian ikus daitekeenez, bertako hizkuntzaz aparte, ingelesa **ere** ondo menperatzen du Caminok.



Imanol Agirre

Imanol Agirre García (Bilbo, 1974), pilota munduan Agirre bezala ezaguna dena, eskuzko pilotaria da, aurrelaria hain zuzen ere, Asegarce enpresakoa. Estatistika ofizialen arabera, 1.76 m. luze eta 77 kg. da. Lehendabiziko partida 1995eko urtarrilaren 21ean jokatu zuen eta **kirolaz gain**, badu beste ogibiderik, txerriak hazten baititu hiru hektarea dituen mendian, libre dabilzala. *Txerrizaleok* elkarteko kide **ere** bada Agirre.

3 FAMATUAK BEZAIN TREBE

KONPARA ezazu orain zuk egiten dakizuna eta lehenago aipatu ditugun pertsonaiek egiten dakitena.

Adibidez:

*Imanol Agirrek pilotan ondo egiten du eta neuk **ere bai**.*

*Yolanda Alzolak badaki haurrentzako ipuinak idazten eta **nik, berriz, ez**.*

Hemen idatzi:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Laguntzeko, hona hemen erabil ditzakezun hainbat molde eta adibide gehiago:

ADINA + IZENA
BEZAIN + ADJEKTIBOA

Nik Travoltaren antzera antzezten badakit.

*Hala ere, ez dut John Travoltak **adina hegazkin**.*

*Postreak prestatzen badakit. Baina, ni ez naiz Eva Arguiñano **bezain trebea**.*



Orain, **saia zaitetz ERANSTEN** segidan zuk egiten dakizkizun gauza guztiak: (Ahalik eta gehien idazten saia zaitetz, aukeran dituzun molde hauek erabiliz. Errepara iezaezu aurreko orrialdeko testuei, bertan aurkituko baituzu adibideak).

Horrezaz gain...
Gainera...
-t(z)eaz gain
-z gain
-z aparte
... ez ezik... ere...

Esaterako: *Nik pilotan badakit. **Horrezaz gain**, pianoa jotzen dut.*
*Esku-pilotan **ibiltzeaz gain**, palan ere egiten dut.*
*Ipuinaz **aparte** eleberriak ere idazten badaki.*
*Nik piraguan ibiltzen badakit. **Gainera**, belauntzian ibiltzen ere ikasi dut.*
*Ingelesez **ez ezik** frantsesez **ere** hitz egiten badakit.*

.....

.....

.....

.....

.....

.....



4 IRAGARKI-TAULA

Internetera jo dugu eta orrialde hau aurkitu dugu. Hainbat jendek lan egiteko eskaintzen du bere burua. Irakurri arretaz bakoitzak jarri duena:



IRAGARKIRIK BERRIENAK

- Eskaintza: Garbiketa eta mantenua
ZURE ETXEA MARGOTUKO DUT

Eskarmentu handia dut. Aurrekontua eskatu eta gero erabaki. Konponketak egiten ditut eta horrez gain, papera jartzen ere badakit. Koloreak aukeratzen lagunduko dizut eta, nahi baduzu, etxea goitik behera aldatuko dizut, kolore berriekin.


- Eskaintza: Osasun-zerbitzuak
ADINEKO GIZON-EMAKUMEAK ZAITZEKO EMAKUMEA

Ez al dakizu zure ama/aita edota aitona/amona norekin utzi? Urte asko eman ditut adineko pertsonak zaintzen eta oso ondo egiten dakit. Eri-zain-lanak ere egiten ditut: badakit zauriak zaintzen, botikak ondo dosifikatzen, tentsioa hartzen, injektzioak jartzen... Horrezaz aparte, zaintzen ditudan adinekoak nire senidea balira bezala mimatzen ditut: beraiekin patxadaz hitz egiten dut, beren kontutxoak entzuten ditut eta pazientzia handia daukat.


- Eskaintza: Prestakuntzarik ez
PAILAZOA NAIZ

Zure haurrak urteak beteko ditu? Deitu eta ez zaizu damutuko. Urtebetetze-festa handia antolatuko dut zure etxean, haurraren laguntxo guztiekin. Oso txiste onak kontatzen ditut eta haurrek primeran pasatzen dute nirekin. Badakit globoak puzten eta puzteaz gain, forma ezberdinak ematen: txakurrak, ezpatak eta loreak egiten dakit. Kantatzen ere badakit.


- Eskaintza: Ostalaritza eta turismoa
ZERBITZARI-LANAK EGITEKO GIZON GAZTEA

Taberna edota jatetxe batean lan egin nahi dut. Bost urte eman ditut taberna batean lan egiten eta denetik egiten ikasi dut: badakit mahaiak zerbitzatzeko, harrikoa egiten, sukaldea garbitzen, bezeroez arduratzen... eskatzen didatena. Oso alaia eta itxura onekoa naiz. Autoa gidatzen ere badakit.



5 NEU ERE SAREAN

Zeure txanda da orain. Iragarkia txertatu nahi duzu Interneten, zeure burua aurkeztuz eta lan baterako eskainiz. Beraz, aurrekoak eredu hartuta, bete ezazu inprimakia interesgarriak iruditzen zaizkizun datuak idatziz:

Zeure argazkia

Iragarkiaren izenburua:

Deskribapena:

Animatzen bazara, bidali zure idatzia gure aldizkaria, oparia jasoko duzu trukean eta, agian, argitaratuta ikusiko duzu hurrengo ale batean. Gure helbideak, hauexek:

HABE aldizkaria, Vitoria-Gasteiz kalea, 3, 20018 Donostia edota argitalpenak@habe.org

2 **Sail honetako gonbidatu guztiei, euskara ikasten saritu direnean bizi izandako hainbat konturi buruzko galderak egiten dizkiegu, denei berberak. Zuetako asko bezalaxe, euskaldun berriak izanik erantzun digutena interesgarria gertatuko zaizuelakoan.**

Testua: Oihana Prado (Kazeta5)

Argazkia: EHU

Juan Ignacio Perez Iglesias

2 004. urteaz geroztik EHUko errektore da Juan Ignacio Perez Iglesias. Biologian doktore eta Fisiologiako katedraduna da. Gaztetan hasi zen euskara ikasten, euskaraz mintzatzea harreman-sarea zabaltzeko ezinbestekoa zela erabaki zuenean. Liburuak baino, lagunek murgildu zuten euskararen munduan; hain zuzen, unibertsitateko irakasle baten laguntzari esker ikasi zuela dio. Eta unibertsitatean eskolak euskaraz ematen hasi zenean, hizkuntza perfektionatu zuen, "giltzurrunaren funtzionamendua azalzeko hizkuntza ondo menperatu behar baita".

1. Zein da zure ama-hizkuntza?
Gaztelania.

2. Noiz eta nola hasi zinen euskara ikasten?
1975ean hasi nintzen euskara ikasten, Portugaleteko euskara talde batean. Batxilerra ikasten ari nintzen. Unibertsitatean nengoela ere euskara ikastaro bat egin nuen. Baina batik bat, lagunekin hitz egin ez ikasi nuen. Guztietan lagun jakin batek lagundu zidan gehien. Hortaz, esan daiteke, liburu artean baino, praktika eginez ikasi nuela euskara.

3. Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?
Hasieran, kuriositateak bultzatu ninduen. Unibertsitatean sartu nintzenean, berriz, euskara ikasi ezean lagun asko galduko nituela ikusi nuen. Euskaraz mintzatzeak harreman-sare handiagoa izateko bidea zabalduko zidala erabaki nuen.

4. Zer izan zen zuretzat errazena eta zer zailena ikasteko garaian?
Ez nintzateke ausartuko esaten zer izan zen zailena, baina esango dizut zer den errazena: harrigarria bada ere, hizkuntza bera da erraza. Eta argudio asko dauzkat hori azaltzeko. Euskara ez da zaila; euskara desberdina da. Jende askok, ordea, ezberdin izateak zaila izatearekin nahasten du. Gaztelaniarekin zerikusirik ez duelako esaten dute zaila dela, baina esango nuke gaztelania bera askoz ere konplexuagoa dela. Euskara erraza dela diot barne logika handia duelako; aditzak, esate baterako, ez dauka irregulartasunik eta behin paradigmatik ikasiz gero ez dago konplikaziorik. Zailena, ordea, aditzaren baldintzak dira, batez ere, baldintza arraroak: iraganekoak, esate baterako. Uste dut horiek ez ditudala ikasiko bizitza osoan. Baina, horrek ez nau batere kezkatzen, ezagutzen ditudan euskaldun zaharrek ere gaizki erabiltzen dituztelako. Argi dago hobe dela ondo hitz egitea, baina iraganeko baldintzak gutxitan erabiltzen dira eta menperatzea ez da ezinbestekoa.

5. Ikasi al duzu beste hizkuntzarik?
Ingelesa ikasi dut.



6. Zure ustez errazago ikasten al da hirugarren hizkuntza bigarrena baino? Zergatik?

Uste dut baietz, baina ez nago oso seguru. Bigarren hizkuntza ikastea zailagoa da muga bat gainditu behar delako: zeurea ez den beste egitura bat existitzen dela onartu behar delako. Behin hori onartzen duzunean, burua baldin egiten duzu, bestelako ereduak daudela ulertzen duzulako.

7. Nolako hizkuntza iruditzen zaizu euskara: polita, musikala, gogorra...?

Ezin diot adjektiborik jarri. Esango nuke hizkuntza guztiak iruditzen zaizkidala ederrak. Euskarazko zein gaztelaniazko olerki batzuk asko gustatzen zaizkit soinuarengatik. Bestelako hizkuntzak ez ditudanez ezagutzen, ezin dut baloratu. Batzuek, ordea, esaten dute hizkuntza batzuk besteak baino egokiagoak direla; frantsesa, esate baterako, oso literarioa dela. Baina alemanari buruzko gauza ikaragarri politak irakurri ditut askotan, nahiz eta askorentzat alemana gogorra izan. Hizkuntza bakoitzak bere alde onak dauzka.

8. Erraz pasatzen al zara zure ama-hizkuntzatik euskarara?

Ez daukat batere zailtasunik, askotan konturatu gabe pasatzen naiz batetik bestera.

9. Zer egiten zenuen zure kabuz euskara lantzeko?

Ezer gutxi. Lehenengo 15 urtetan ez nuen ahalegin handirik egin eta nire hizkuntza pixka bat zurrina zen. Duela 10 urte, berriz, euskaraz irakurtzeko interesa piztu zitzaidan eta asko hobetu dut. Baina ez dut ahalegin berezirik egin, irakurri badut interesatzen zitzaidalako izan da. Gero, eskolak euskaraz eman izanak asko lagundu nau.

10. Zerk edo nork lagundu dizu gehien euskara ikasteko garaian?

Unibertsitateko irakasle batek asko lagundu ninduen bere garaian. Bestalde, euskaldun asko inguruan izatea oso lagungarria izan da. Eta unibertsitatea, nola ez. Giltzurrunaren funtzionamendua azalzeko hizkuntza ondo menperatu behar duzu.

11. Zer esango zenioke jendeari euskara ikastera animatzeko?

Ikasi ezean mundu oso bat galduko dutela. Horixe izan zen euskara ikastera bultzatu ninduen arrazoi nagusia. Gainera, irakurri dudanez, Euskadiko eliteak euskaldunak izango dira hemendik gutxira eta euskara ulertzen ez duenak asko galduko du, galtzen duena jakin gabe, gainera. ■

MARIASUN LANDA:

**"Bizitzak pentsatzen
ez nuen bidetik
eraman nau, baina
azkenean nahi nuen
lekura ailegatu naiz"**

Testua: Oihana Prado (Kazeta5)
Argazkiak: C. Beyreuther



2 1968ko udazkenean iritsi zen Mariasun Landa (Errenteria, 1949) Parisera, "maiatzeko festa igaro ondoren". *Au pair gisa* lan egiteko asmoz joan zen eta ordura arte ezezaguna zitzaion mundua aurkitu zuen. Lau urte eman zituen Frantziako hiriburuan, baina **soilik** lehenengo urte hartan bizitakoa kontatzea erabaki du. Bere bizitzan garrantzitsuak izango ziren hainbat erabaki hartu zitueneko urtea baita, hain zuzen. "Festa aldameneko gelan" narrazio autobiografikoa da, lehen orrialdetik amaiera arte irakurlea eskutik eramaten duena.

Atsekabe, amets eta, oro ohar, **sentimenduz zipriztinduta** dago idazlearen azkeneko lana, helduei zuzendutako lehenengoa. Horrek, dirudienez, jakin-min handia sortu du irakurleen artean eta Durangoko azokan gehien saldu zen argitalpenetako bat izan zen.

Mariasun Landarekin izan dugu solasaldia eta bere azkeneko liburuaz zein bere ibilbideaz mintzatu zaigu, nahi duena lortu delako lasaitasunarekin.



“Festa aldameneko gelan” liburuan 1968ko Parisen bizitakoaren erretratua egiten duzu; hortaz, autobiografia nobelatua dela esan daiteke?

Teoria literarioaren arabera, **eztabaidagarria** da oso autobiografia nobela izan daitekeen. Nahiago dut arazo teoriko hori saihestu eta narrazio autobiografikoa dela azpimarratzen saiatu, eta nobela bezala irakurtzea espero dut. Orain arte irakurri dutenek ere hori esaten dute: nobela baten **antzera** irakurtzen dela, tragoxka batean hasi eta bukatu egiten dena. Horretarako, asko saiatu naiz erritmo bizia ezartzen.

Teoria alde batera utzita, goazen mamira. Zer kontatzen duzu liburuan?

Parisen lau urte eman nituen, 1968ko udazkenetik 73ra, baina lehenengo urtea aukeratu dut bakarrik. Beste hiru urteetan unibertsitatean ikasten aritu nintzen eta bizimodu **egonkorra** goa izan nuen. Lehenengo urtea, berriz, narratiboki interesgarriagoa iruditzen zitzaidan. 19 urte nituen eta udazkenean iritsi nintzen, “maiatzeko festa igaro **ostean**”. *Au pair* bezala lan egitera joan nintzen Parisera eta horri esker leku askotako familia xeble edo berezi batzuk ezagutzeko aukera izan nuen. Bestalde, urte horretan bertan, nire bizitzan garrantzitsuak izango ziren erabakiak hartu nituen: filosofiako ikasketak egitea erabakitzeaz gain, erabaki sentimentala ere hartu nuen.

Eta zer aurkitu zenuen 68ko Paris hartan?

Parisen gauza asko deskubritu nituen: lehenengo aldiz ikusi nituen erosketak egiteko karroak, gizonezkoak erosketak egiten edota nahi nituen liburuak eta pelikulak ikusteko askatasuna ezagutu nuen. Oso zaila da irudikatzea gure herria nolakoa zen Frankismoaren garaian. Gaur egun, dena izugarri **berdindu** da, ez dago alde handirik hemen edo Parisen bizitzearen artean. Gaur egun atzerrira bizitzera joaten direnen esperientzia ezin da alderatu nirearekin. Gainera, esan behar dut Parisera eraman ninduen motibazioetako bat, frantsesa ikasteaz gain, nire independentzia afektibo zein ekonomikoa bilatzea izan zela: ni neu izan nahi nuen. Horren haritik, liburuaren hasieran esaten dudana bezala, nik sekretu bat neukan: idazle izan nahi nuen eta nire ikuspuntutik, idazle izan baino lehen BIZI egin behar nuen eta “bizi” hori letra larriz jarri beharko litzateke. Garai hartako Parisen, beraz, gauza asko aurkitu nituen: anti frankistak, emigranteen egoera... Ni neu emigrante nintzen eta paristar batzuen jarrera arrazistak bizi izan nituen, *au pair* baino, etxeko esklabo bezala sentiarazi nindutelako. Gehiago ez dizut kontatuko, bestela, ez duzu liburua irakurriko.

Aukeratu duzun izenburua oso iradokitzailea da eta liburua nagusiaren aztarna ematen digu...

Titulu ironikoa da, protagonistak narrazio guztian zehar sentitzen duen **atsekabea** iradokitzen du. Protagonistak pausu garrantzitsua eman du: Paris zoragarrira joan da, baina bertan aurkitzen duena ez da hain **distiratsua**. Hasteko, maiatzeko festara berandu iritsiko da. Baina atsekabea bera motore bilakatzen da, horrek aurrerapauso batzuk ematera behartzen baitu. **Errudun sentimendua** ere sarritan azaltzen da, frankismoaren garaian **atzerrian** bizi ginenon artean nagusi zena.

Helduentzako idatzi duzun lehen eleberria da. Eroso sentitu al zara idazteko orduan?

Eroso hitza ez da egokia, idazketa prozesuan une desberdin asko pasatzen ditugulako idazleok: une goxoak eta euforikoak daude, kapitulu edo paragrafo bat biribiltzen duzunean, baina gehienetan nahiko lan gogorra eta lehorra izan ohi da. Gainera, narrazio laburrekin ohituta nago. Likorezko bonboiak bezalakoak dira; berehala **irensten** dituzu, baina gustua luza-

ANTZERA.- Modura, bezala. *Como, a modo de. Comme.*
ATSEKABE.- Gogoko ez denak edo ezbeharrak sortzen duen sentipen mingarria, nahigabea. *Pena, pesar. Peine.*
ATZERRI.- *Extranjero. Pays étranger.*
AZARNA.- Aztarren, arrasto, lorratz. *Pista. Trace, vestige.*
BERDINDU.- Bateratu. *Equiparar (se). Égaliser.*
BIRSORTU.- *Reproducir. Reproduire.*
DISTIRATSU.- Distiraz betea. *Resplandeciente. Brillant/e.*
EGONKOR.- *Estable. Stable.*
ERRUDUN SENTIMENDU.- *Sentimiento de culpabilidad. Sentiment de culpabilité.*
EZTABAIDAGARRI.- Eztabaida eragiten duena. *Discutible. Discutable.*
GISA.- Modura, bezala. *Como, a modo de. Comme.*
IRADOKITZAILE.- *Sugerente. Suggestif/ive.*
IRENTSI.- *Tragar. Avaler.*
LIBURUGINTZAREN HERENA.- *Un tercio de los libros que se han publicado. Un tiers des livres publiés.*
OSTEAN.- Ondoren. *Después de. Après.*
SENTIMENDUZ ZIPRIZTINDUTA.- Sentimenduak nonahi ageri dira. *Salpicado/a de sentimientos. Taché/e de sentiments.*
SOILIK.- Bakarrik. *Sólo. Seulement.*
TARTEKA.- Noizean behin. *De vez en cuando. De temps en temps.*
TONU GAZI-GEZA.- *Tono agrdulce. Ton aigre-doux/douce.*

rorako gelditzen zaizu. Narrazio luzeak, berriz, metodologia oso ezberdina eskatzen du. Koherentzia eta erritmo narratiboa asko landu behar izan ditut. Gainera, kontakizun autobiografikoa izanik, emozio asko piztu dira. Une ederrak igaro ditut, baina baita hunkigarriak ere garai hartan hartutako notak berriz begiratzean. Lan autobiografikoak norberaren oroimena erekin lan egitea eskatzen du eta bi kontzeptuekin jolastea esan nahi du: objektiboki bizi duguna eta amestutakoa, alegia. Azken finean, bizipen eta sentsazio bilduma kaotikoa gara eta oroitzapenak estruktura narratiboaren bidez antolatzen ditugu; ipuin bat bezala kontatzen dugu gure bizitza eta aukeraketa horretan gauza asko uzten ditugu alde batera.

Uste duzu haur literaturako idazleek merezi duten errekonozimendua dutela?

Sistema literarioan haur eta gazte literatura baztertua daude eta idazle klasikoei ez zaie merezi duten garrantzia ematen. Dena den, esan behar dut idazten hasi nintzenetik, haur eta gazte literaturako idazleen bilakaera oso positiboa izan dela. **Liburugintzaren herena** haur eta gazte literaturari dagokio, horrek esan nahi du irakurle asko dagoela eta negozio handia dela. Nahiz eta *glamour* gutxiago daukan.

Liburua gaztelaniaz idatzi duzu, zergatik?

Familia euskaldun batetik nator, baina gerra galdu zutenen alderdikoa, eta gaztelaniaz bakarrik hitz egiten nuen; Frankismoaren garaia ziren. Parisen bizitako garai hori **birsortzeko** gaztelania eta frantsesa etortzen zitzaizkidan burura.

Jesus Mari Lasa arduratu da euskarazko itzulpenaz.

Errespetu handiz irakurri dut bere itzulpena, itzultzaileek badutelako beren esparrua eta meritua. Baina berak ere ulertu egin du **tarteka** eskua sartu nahi izana testuan, idazleok mania dezente ditugulako. Itzulpenaren azken etapan, batik bat, bildu egin ginen eta aldaketa batzuk sartu ahal izan nituen, ez asko. Izan ere, benetan harrapatu du gaztelaniazko bertsiorearen erritmoa, **tonu gazi-geza**...



Zerk kezkatzen zintuen gehien?

Erritmo narratiboarekin obsesionatuta nago. Narrazioak bukaera arte eraman behar du irakurlea. Euskarazkoak gaztelaniazkoak bezain erritmo bizia izateak kezkatzen ninduen, edo umore fina eta ironikoa mantentzeak.

Hogeita lau urterekin ikasi zenuen euskara, Frantziatik itzulitakoan...

Euskararekiko kezka beti izan nuen eta Euskadira itzuli nintzeanean garbi neukan euskal kulturaren alde egiteko ezinbestekoa zela hizkuntza ikastea. Orain erraz esaten da ikastearena, baina garai hartan ez zegoen non ikasi, ezta metodologiarik ere. Zarauzko ikastolan hasi nintzen lanean eta sei urteko umeen aurrean aurkitu nuen neure burua. Garai hartan, ikastolak espazio elebakarrak ziren eta nire **murgiltze-prozesua basatia** izan zen. Sufrimendua eta poza, biak izan nituen. Garai hartan, hain zuzen, hasi nintzen nire ikasleentzako ipuinak idazten, ez baitzegoen euskarazko materialik.

Krokodiloa ohe azpian lanak Literatur Sari Nazionala eman zizun eta orain Nobel txikiak bezala ezagutzen diren Andersen sarietarako hautagai izendatu zaituzte. 30 liburu baino gehiago idatzi dituzu eta hizkuntza askotara itzuli dira zure lanak. Atzera begiratzen duzunean, nola ikusten duzu zure bilakaera?

Parisen egon nintzen garaian, esate baterako, ez zitzaidan burutik pasa haur literatura egingo nuenik. Nik idazle izan nahi nuen eta hainbeste urte pasa ondoren idazle naizela esan dezaket. Lehenengo, haur eta gazte literaturako egile, testuinguruak edo bultzatuta. Hainbeste buelta eman ondoren, bizitzak pentsatzen ez nuen bidetik eraman nauela ikusten dut, baina azkenean nahi nuen lekura ailegatu naiz.

Aurrera begira, zer egin nahi duzu?

Orain, liburuaren promozioan murgilduta nago erabat. Jende askok bigarren zati bat egin beharko nukeela esan dit. Baina, ez dakit egingo ote dudan, ez baitzen nire asmoa. Oraingoz, testu horretatik **aldendu beharra daukat** eta, bide batez, bizpahiru narrazio labur bukatzea gustatuko litzaidake. ■



ALDENDU BEHARRA IZAN.- *Tener la necesidad de distanciarse. Avoir le besoin de s'éloigner.*

MURGILTZE-PROZESU BASATIA.- *Proceso de inmersión (lingüística) salvaje. Un procès d'immersion (linguistique) sauvage.*

2 Elkarrizketa irakurri ondoren



Hona hemen liburutik hartutako pasarte bat. Azpimarra lehenik eta zerrenda itzazu ondoren protagonistak Parisen aurkitu dituen **nobedade edo gauza berriak**:



Madamek goiz guztia nire atzetik ematen zuen, pauso txikika, atzeko hanken gainean doan txakurtxo bat balitz bezala: «Kontuz, kontuz, ez ireki leihoa, ez hartu zapi hori, poltsa hura... Zenbat urte ditu zure amak? Gazteagoa al da? Politagoa? Entsalada, ez ahaztu entsalada!»

Goizero irteten ginen mundura, bera eta ni, orduan niretzat nobedadea zen erosketa orga hartuta. Etxekoandrea ezagutuz joan ahala, buruz ikasi nituen haren *bonjour* guztiak: *bonjour* okindegian, harategian, eta botikan. Azken horretan, bide batez, hau edo beste hura bazuten galdetzen zuen. Mundu guztiak zekien hark behar zuena hitz egitea zela, existitzea, bere hilobitik ateratzea. «Frantses guztiak dute hitz egiteko premia», pentsatzen nuen nik, mesprexutik urrun ez zegoen erdeinu izpi batekin. Eta eskua ematekoa. Edo musukatzekoa. Mojen egoitzan bizi ziren neska frantsesek, esate baterako, beti ematen zioten musu elkarri, eta hiru edo lau, gainera. *Bonjouuuur*, mua, mua, mua, behar zen guztietan. Gehiegizko adierazpenak, dudarik gabe, euskal herritar batentzat.

Nolanahi ere, erosketa orgari tiraka haren ondoan egiten nuen ibilalditxo hura zen goizeko ordurik onena. Izugarri gustatzen zitzaidan aire freskoa sentitzea, kalea frutaz eta barazkiz betea ikustea. Erremolatxa, endibiak, lutxarbiak... produktu ia ezezagunak ziren artean, gure herrian. Eta gazta saltokiak: zenbat gazta mota eta zeinen txukun ipinita! Hura guztia berria zen niretzat. Etxekoandreak apain-apain agertzen ziren beti, beren kapelatxo, fular eta takoiekin. Gizonezko erretiratuak, kapelak eta bufandak jantzita, Aljeriarraren fruta-saltokian egoten ziren ilaran, hark saltzen baitzituen laranja onenak. Gizonezkoak erosketak egiten ikustea ere ez-ohikoa zen niretzat. Eta, batez ere, goizeko ordu hura izaten zen etxekoandrea nire inguruan xaltoka ibiltzetik libratzen nintzen una bakarra.

(*Festa aldameneko gelan*, 37. or.)

Zerrenda:

- *Erosketak egiteko orga*
-
-
-

Zerrenda osatu ondoren, esaguzu:

- Horietatik, zein aipatu ditu Mariasun Landak elkarrizketan?
.....
- Elkarrizketan aipatzen du, hala ere, pasartean ageri den beste nobedade bat. Zein da?
.....
- Zein dira, protagonistaren ustez, gehiegizko adierazpenak?
.....
- Zein, ordea, harrigarri eta gustuko?
.....

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera

Argentinar eta uruguaitar euskara-irakaslegaiak Euskal Herrian

3 Badira 18 urte Eusko Jaurlaritzak *Euskara Munduan* izeneko programa abian jarri zuela, munduko Euskal Etxeetan euskarazko eskolak ematea eta euskal hiztunak sortzea helburu nagusi duen egitasmoa. Urte hau hastearekin batera, berriz, egitasmoa gaur egun zertan den azaltzeko, Eusko Jaurlaritzak ekitaldi bat antolatu zuen. Egokiera ezin hobea izan zen horretarako, izan ere, egitasmo honen baitan hainbat argentinarrak eta uruguaitar irakaslegai etorri berri baitira Euskal Herrira barnetegi trinko bat egitera, bi hilabeteko ikastaldia burutzeko asmoz.



Talde osoa Lazkaoko Maizpide barnetegian

HABEren egitekoen artean Euskal Etxeetan euskarazko eskolak emango dituzten irakasleak trebatzea dago. Izan ere, *Euskara Munduan* programaren oinarrietako bat da Euskal Etxeek giza baliabideen aldetik autonomia eta beregaintasuna izatea euskarako eskolak antolatzeko garaian. Jaurlaritzaren egitekoa, beraz, egitasmoa gauzatzeko finantzabidea, materialak eta aholkularitza ematea da, eta tokian tokiko Euskal Etxeak giza baliabideak eta azpiegitura jartzen arduratzen dira.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenak hizkuntzen irakaskuntzan ahalbidetu dituen bitarteko berriei esker, ordea, 2003-2007 urtealdian on-line ikastaroak eman zitzaizkien hango irakasle-gaiak; horrela, HABEko eta hemengo euskaltegietako irakasleak tutore dituztela, urte osoan euskara lantzen aritzeko aukera eskaini zaie (urrutitik ikasteko beraientzat bereziki sorturiko materialez eta irakasle-tutoreen etengabeko laguntzarekin); eta banaka egindako lan hori osatzeko, urtean bi barnetegi trinko eta labur (9 egunekoak) egin dituzte taldean, Argentinan bertan. Hango barne-

tegietan, mintza-saioak egiteko aukeraz gainera, gutxieneko ezagupen didaktikoak eskuratzen dituzte irakasle-gaiak. Horrela 40 irakasle-gai aritu dira, bi taldetan antolatuta (Diaspora I eta Diaspora II), joan diren lau urteetan: gehienak argentinarrak, baina baita uruguaitar batzuk ere (4). Elkarrengandik oso urrun bizi ziren irakasle-gaiak era iraunkorrean trebatzeko aukera eman du on-line eta autoikaskuntza sistemak: Buenos Aires, La Plata, Arrecifes, Bahía Blanca, Tandil, La Plata, Chacabuco, Magdalena, Mendoza... eta abarrek jendea aritu da bi taldetan, Argentinako edozein tokitako jendea, alegia.

HABEk, bestalde, euskarazko eskolak emateko aholkularitza didaktikoa eta materialak eskaintzen dizkie Euskal Etxeei. Azken urteotan, bestalde, BOGA autoikaskuntzako baliabidea instalatzen ari da eskatzen duten Euskal Etxeetan. BOGA instalatzeaz gainera, HABEko teknikariek sistemaren edukien berri ematen diete tokian tokiko irakasleei, tutore-lana nola egin irakatsiz eta ikasleen jarraipena egiteko trebatuz.



HABEK euskara-eskola hauek diruz laguntzen ditu. Diru-laguntzen deialdi honen babesera bilduta, gaur egun 2.000 ikasle inguru ari dira mundu osoko Euskal Etxetan euskara ikasten. Goiko mapan laburtzen da, hain zuzen, joandako ikasturtean (2006-2007an) deialdiaren bidez finantzatutako jarduerak:

"Irakurle programa" **munduko unibertsitateetan**

Euskara Munduan programa honetaz gainera, Kultura Sailak badu beste programa bat ere euskara eta euskal kultura nazioartean ezagutzera emateko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen programa honen garrantziaz jabetzeko, esan dezagun 2007-2008 ikasturte honetan zehar 12 herrialdeetako 24 unibertsitateetan arituko direla euskara eta euskal kultura ematen irakasle-irakurleak, denetara 700 ikasle inguru izango dituztela.



Euskadi Irratiko zuzeneko lokutorioan, Manu Etxezortu esatariarekin batera.



“Giroa falta da, baina Euskal Herritik kanpo ere euskara ikas daiteke”

Argentina eta Uruguaitik etorritako 23 ikasle-irakasle hauek Maizpide barnetegian bi hilabetez arituko dira euskara sakontzen eta hobetzen. Beren herrietan euskara ikasten eta irakasten aritutakoak dira guztiak, eta hona etorrira, ikas-prozesuan aurrerapauso handia emateko asmoz, eskolak jaso eta batetik bestera dabiltza. Horietako irteera batean Euskadi Irratira joan ziren elkarrizketa bat eskaintzera.

Guztiek dute irakasle izateko helburua eta guztiek azpimarratu dute euskara han ikastea zailagoa dela, giroa falta baita. Baina, ez ezinezkoa. Hona hemen laburbilduta, han esan zituztenak:

Gabriel Artze

“Duela bost urte hasi nintzen euskara ikasten Buenos Airesen. Banekien euskal sustraiak nituela. Eta hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Egun batean *Soziedad Alkoholika* taldearen abesti bat entzun nuen. Eta euskara zer zen ikertzen hasi nintzen. Internet bidez aurkitu nuen *Euskaltzaleak* erakundea, Buenos Airesen klaseak ematen dituena. Eta hantxe hasi nintzen duela bost urte ikasten. Gero, Eusko Jaurlaritzak prestatu zuen programa batean “Argentinan euskaraz” sartu nintzen.”

Agurtzeko erak eta zenbakiak izan ziren euskaraz ikasi zituen lehenengo edukiak. Ikasteko zailena, ordea, zer-nori-nork eta konparaketak egitea dela dio. Euskal Herritik kanpo euskara ikastea zaila omen da. Euskal Etxetik kanpo ezin baita euskal girorik aurkitu. Hango Euskal Etxean sartzen denarentzat den-dena da berria, baita *kaixo* edo *etxe* hitzak ere. Hemen oso desberdina dela azpimarratu du.

Marina Aranguren

“Nik banekien nire familia hemengo zela, nire aitona. Banekien familia nuela hemen, baina ez nuen ezagutzen aurrez aurre. Banekien euskaldunak zirela, beren hizkuntza zeukatela. Egun batean euskara ikasten hasi nintzen, asko gustatu zitzaidan. Gehiegi. Geroago, irakasten ere hasi nintzen.”

Ikasi zuen lehenengo gauza Euskal Herriko lurraldeen eta euskalkien izenak izan ziren. Aurrera egin ahala, aditz trinko batzuk ikastea zaila dela dio.

Belen Girasole

“Nik ez dut euskal sustrairik. Baina, Gabrieli esker nago hemen. Marina izan zen nire lehen irakaslea eta orain hemen elkarrekin ari gara ikasten. Nik ikasi nuen lehenengo gauza *izan* aditza izan zen eta besteek bezala, Euskal Herriko geografia.”

Leonat Egiazabal

“Txikitatik izan nuen euskara ikasteko gogoia. Etxean istorioak entzuten nituen. Eta aurkitu nuen aukera eta euskara ikasten hasi nintzen. Aintzinako kultura berreskuratzen saiatzen ari naiz. Hori da neure arrazoi nagusia ikasteko. Baina, batez ere, amatxiri zor diot euskara ikasi izana. Nire amatxi Uruguain sortua izan arren, bere amatxia baxenabartarra zen, eta denbora asko pasa arren, hizkuntza zerbait mantentzea lortu genuen eta hortik hasi nintzen euskara ikasten. Ni, etxean, “ipurdi-zikina” nintzen. Beraz, hauxe izan zen ikasi nuen lehen hitza.

Nire ustez, euskara ez da zaila, zaila dena da euskara Euskal Herritik kanpo ikastea. Ikas daiteke, hala ere.” ■



Luis Camino:

“Nire azken lana, *Dancing Mantras* izeneko diskoa, goitik behera neure kabuz egin dut”



② 1999. urtean hasi zen Luis Camino musikari donostiarra Indiarako bidaiak egiten, musika berriekin harremanetan jartzeko zuen gogoak bultzatuta. Hain esperientzia atsegina izan zen, gaur egun Indian bertan bizi dela, bere hitzetan, lur planetako tokirik erakargarrienetako batean, Jaisalmerren, hain zuzen ere. Eta han, Indian, eman du argitara bere azken musika-lana, *Dancing Mantras* izeneko CDa.

L Lehenengo eta behin, koka dezagun Jaisalmer, Caminoren bizileku berria. Rajasthaneko estatuan dago eta munduko hiririk aberatsenetako bat da kultur aniztasunari dagokionez. Izan ere, garai batean Thar basamortua zeharkatzen zuten karabana komertzialen horniketa eta harremanetarako azken puntua izan zen, zetaren ibilbidean. Kontu jakina da handik atera zirela bere garaian Rajasthandar ijitoen karabana, ibilbideko herrialdeetan finkatu zirenak, Espainiaren hegoaldera bitarte. Ibilbide luze horretan zehar, beren arrasto kulturala uzteaz gain, gaur egun ezagutzen dugun ijito edo flamenko kultura sortu zuten, finkatu ziren herrialde bakoitzaren ezaugarri kulturekin nahastuz.

Luis Camino: "Nire azken lana, *Dancing Mantras* izeneko diskoa, goitik behera neure kabuz egin du"



Diskoa eskuratzeko bideak:
Donostian, Garazi liburu-dendan
Ordizian, Sugaar tabernan eta kale nagusiko dendan
www.myspace.com/luiscaminoabyayala helbidera
eskatuta
Salneurria: 10€

Nola sortu zen *Dancing Mantras* CDa

Luis Caminoren ustez: "Indian egon eta hain aberatsa eta ezberdina den kultura baten alderdiak dastatzeko aukera daukazunean, ezinbestekoa da ahoa ireki eta belarriak erne edukitzea, zure aurretik igarotzen den guztia ahalik eta gehien xurgatu ahal izateko". Hori horrela, Indian deigarriena gertatu zitzaion gauzetako bat zera izan omen zen: "Hinduen alderdi erlijiosoaren eta norbanakoaren eguneroko bizimoduaren arteko uztarketa".

Indiar bizitzaren alderdi edo ekintza bakoitzeko *mantra* (otoitz) bat dago, behin eta berriz kantatuz, dagokion jainkoari laguntza eskatzen diona, bere esku utzitako lanean laguntzeko.

Era honetan eta Jaisalmereko hinduen musika klasikoko musika-eskolarekin harremanetan jarri eta gero, Shobha Harsh, Arty Vyas eta Rupendra "Lala" Gopa Ji aukeratu zituen Caminok *mantra*-sorta bat grabatzeko.

Caminok azpimarratu digu: "Abeslari hauek ez dira inondik inora profesionalak eta beren aisialdian aritzen dira kantatzen, etorkizunari begira indiar kultur ondareari eutsi nahian".

Grabazio hauetatik abiatuta, *Dancing Mantras* lana osatzen joan zen, Indian argitara eman duen bere lehen CDa. Esan beharra dago STAR MUSIC zigilu independentearen eskutik atera dela, Luis Caminoren lagun handia den Pradeep Sharmaren laguntzari esker.

Begirunea eta koexistentziarako musika

Bi hitz nagusitan oinarritu daitezke lan honen grabazio eta programazio-lanen helburuak: begirunea eta koexistentzia. Caminok zera azpimarratu nahi izan du: "Goitik behera neure kabuz egindako lana da, lehen musika-notatik hasi eta Delhin CDa egiteraino, hainbat salbuespen izan ezik: hala nola, Mikel Fernández Krutzaga soinu-teknikariaren lana (Grammy saria jaso zuen Kepa Junkerarekin egindako lanarengatik) azken nahasketaren master-lanean, Karlos Gimenezen harmoniuma *Ganesh Mantra* izeneko abestian eta Nepaleko musikari den Shyam Nepali-ren sarangia *Guru Mantra* izeneko abestian. Horretaz gain, diskoaren azalean ageri den margo indiar klasikorako (Saraswati, arteen jainkosa hindua) Pushkar-eko Narsing Vaishnav margolari ezagunaren laguntza ordainezina izan dut".

Aurreko diskoekiko aldaketa handia

Planteamendu musikalaren ikuspegitik, aldaketa handia sumatzen da azken lan honetan. Dantzagarria, "komertzialagoa", agian, baita. Izenburuan bertan diskoaren zergatia ikus zedin nahi zuen Caminok, hau da, aukeratu zituen abeslariak egunero kantatzen dituzten mantrak (abesten diren otoitzak) grabatu eta buruan duen guztia, hau da, bere musika-ibilbidean jasotako guztia hartuta, bien arteko nahasketa egin nahi izan zuen. Ondorioz, diskoak ez du estilo jakin bat, zenbait pasartetan reggaea, popa, rocka edota oinarri elektronikoa duen musika entzun daiteke eta. "Niretzat ez da batera erraza nire diskoa definitzea, buruan daukadanaren emaitza baita eta hori asko da. Oso musika-estilo ezberdinak landu ditut eta artista askorekin lan egin dut nire ibilbide profesionalan, beraz... Nire musika ez da lehenengo entzunaldian sartzen den horietakoa eta pozik egoteko dudana arrazoia ere bada. Izan ere, musika erraza, oro har, erabili eta botatzeko da eta niri ez zait gustatzen. Disko bat erosi eta entzunaldi bakoitzean gauza berriak aurkitzen baditut, niretzat, lan horri etekina ateratzen diot, aldiko zerbait ematen baitit. Nire lanari buruzko iritzia ematen ausartu direnek esan didate pixkanaka erakartzen zaituen musika dela nirea, gero eta gehiago harrapatzen zaituena" dio Caminok.

Pushkarreko neskei laguntza

Bere musika eta lanaren bidez, Indiako elkarte bati laguntzen dio Luis Caminok. Martxan dagoen *Pushkar Girls Encourage* egitasmoaren baitan, 100 neska, alargunen alabak eta umezurtzak, eskolara eramatea lortu da, laguntzarik izan ezean, eskolaratu gabe egongo lirakeenak. Pushkar herriko jendeak jarri zuen abian, herriko bost dendari laguntzen hasteko elkar-tu zirenean. Helburua ez zen eta ez da eskola berezi bat egitea neska hauentzat, baztertuta egon ez daitezela, baizik eta beste neskekin batera gobernuko eskolara joan daitezela. Lau puntu nagusi ditu egitasmoak:

- 1.- Neskak eskolara eramatea
- 2.- Eskola eta janaria
- 3.- Eskola, janaria eta uniformeak
- 4.- Eskola, janaria, uniformeak eta botikak

Antolaketa honi esker, neska bakoitzak bere neurriko laguntza jasotzen du eta euro bat bera ere ez da galtzen bidean. Caminok dioenez, "Aspertuta gaude ikusten hainbat gobernuz kanpoko erakunderekin sortzen diren arazoak. Gu jende arrunta gara, bulegorik ere ez duena. *Dancing Mantras* diskoaren irabazien %10 egitasmo honi laguntzeko da". ■



Pushkar Girls Encourage egitasmoari buruzko informazio gehiago
www.pushkargirls.org
orrialdean.


“Numenak: Aita” 2 Komikia



8. atala: Elizaren agindua direla eta, ez fabaida izango dufe Diegok eta Marik. Irak, berriz, familiaren eta irakasle baten laguntza izango du Alaitz bilatzen egiten ari den ahaleginean.

Gidoia eta kolorea: Unai Busturia
Arkaiza: Julen Ribas






2  **1.- Diego eta Mari eztabaidan**

Aurreko atalean hasi zen eztabaidak jarraitu egingo du eta Diegok erregina baten betebeharrak zein diren azalduko dio Mariri. Guk hainbat egiteko idatzi ditugu, baina tartean badaude gezurrezko batzuk. Irakur itzazu eta jarri bakoitzaren ondoan EGIA ala GEZURRA diren.

- a.- Erreginak bere senarraren itzalean egon behar du
- b.- Erregeak behar duenean, bere ondoan egon behar du emazteak
- c.- Erregearen sinesmenetan, ordea, ez du zertan ados egon erreginak
- d.- Erregeak dituen sinesmenetan ere bat etorri behar du emazteak

EGIA	GEZURRA
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2  **2.- Mezatan**

Mezatarara joatea arazo da Diego eta Marirentzat. Zergatik, baina? Aukera ezazu erantzun egokia:

1.- Arazoaren arrazoia zera da:

- a.- Diego kristaua dela, baina Mari judu
- b.- Elizak Diego eta Mari mezatarara joan daitezen nahi duela
- c.- Marik Eliza gorroto duela

2.- Mari:

- a.- Ez da kristaua, jentila baizik
- b.- Mairu jaio bazen ere, judua da
- c.- Ez da inola ere elizara joango

3.- Diegoren ustez:

- a.- Mezatarara joatea gogaikarria litzateke
- b.- Mezatarara joango balira Elizak beren alde egingo luke
- c.- Gaztela garaitzeko modu bat da mezatarara joatea

4.- Mariren erantzuna:

- a.- Zalantzakoa da, ez baitaki zer egin
- b.- Gogorra da, hitza jan duela leporatuko baitio Diegori
- c.- Elizarekin tratua egitea proposatuko dio Diegori

2  **3.- Alaitzi lagundu nahian**

Gaur egunera etorrita, Ira laguntza bila dabilela ikusi dugu. Esaguzu pertsonaia hauetako bakoitzak zer esaten edo egiten duen Irari laguntzeko, bikoteak behar bezala lotuz:

- | | |
|----------------------------------|--|
| 1.- Iraren amak • | • a.- Mitologian eta historian aditua den irakaslea aurkeztuko dio Irari. |
| 2.- Iraren aitak • | • b.- Josurekin hitz egiteko proposatuko dio. |
| 3.- Josu, matematika irakaslea • | • c.- <i>Gaueko</i> sineskeria hutsa dela esango dio. |
| 4.- Salazar jaunak • | • d.- Josuk irakasle asko ezagutzen dituela eta, saiatzea merezi duela esango dio. |

Testua eta argazkiak: Juanjo Dorronsoro



“ART IN THE USA” Guggenheim museoan

3 Bilbon ikusgai dagoen erakusketa hau arte iparramerikarrari buruz inoiz egin den erakusketarik handiena da. Azken hiru mendeetako artelanak biltzen dira bertan: 200 obra guztira. Estatu Batuetako arteak urteetan zehar izan dituen berrikuntzak azaltzen dira. Esperientzia iparramerikarra oso aberatsa izan da. Beraien istorioak, era-gozpenak eta amesgaiztoak islatzen ditu “Art in the USA” erakusketak. Bilbora ekarri aurretik Shangain, Moskun eta Pekinen ikusi dute bilduma hau.



“Arrisku seinalea”, Winslow Homer

Atzera begirako erakusketa hau sei atal-letan banatu du E. Kennedy komisarioak:

1. Kolonizazioa eta Matxinada (1700-1830).

XVIII. mendean Asiatik eta Afrikatik Estatu Batuetara etorritako kolonoak eta Erresuma Batutik joandakoak elkarrekin bizi izanak bere eragina izan zuen iparramerikarren artean. Beraien aniztasun kulturala nahiko ondo islatzen dute garai hartako artelanek. Urteak joan ahala, ordea, puritanoen kultura ezartzen joan zen gizartean eta artistek aberatsen erretratuak eta gizartea pintatzeari ekin zioten. Adierazgarria da, adibidez, Charles Willson Pealek margotutako George Washingtonen erretratuak.

2. Zabalkuntza eta Zatiketa (1830-1880).

XIX. mendean nazio handitasuna bihurtu zen artearen lehengaia. Estatu Batuetako pintoreek bertako baso ederrak, lurralde basatiak eta paisaia ikusgarriak pintatu zituzten. Artea aberriaren sinbolo bihurtu zen. Aipamen berezia merezi dute Albert Bierstadten “Sierra Nevada” eta Winslow Homerren “Arrisku seinalea” koadroek.

3. Kosmopolitismoa (1880-1959).

XX. mendean Europan garatutako impresionismoari harrera ona egin zitzaion. Estatu Batuetako artistak bere herriaren imajina atzerrira zabalitzen saiatu ziren. Munduan zehar egindako artelanak ezagutzeko garaia zen. Iparramerikarrek nazioarteko joera berriak ezagutu zituzten. Mary Cassatt da mugimendu berri honen eredurik nagusia.

4. Modernotasuna eta Erregionalismoa (1915-1945).

Depresio Handiaren eragina nabarmena izan zen artearen munduan. Bi estilo indartu ziren iparramerikarren artean: Errealismo soziala eta Abstrakzio piktorikoa. Artelanik ezagunen artean Edward Hopperren “Neska makinan josten” eta Jackson Pollocken “Ilargi emakumea” azpimarratuko nituzke.



“Biluzik hondartzako pilotarekin”, Roy Lichtenstein

5. Oparotasuna eta Etsipena (1945-1980).

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Parisek bere nagusitasun artistikoa galdu zuen eta New York bihurtu zen abangoardien erdigune. Espresionismo abstraktua eta Pop artea izan ziren mugimendu kontrakulturalaren eragile nagusiak. Ipar Amerikako Espresionismoan, Europatik Estatu Batuetara ihes egindako pintoreen eragina ezinbestekoa izan zen. Robert Motherwell, Willem de Kooning eta Rothko dira artistarik ezagunenak. Pop arteak, publicitatearen, komunikabideen, diseinuaren, argazkigintzaren eta kontsumo gizartearen arloak aztertu zituen. James Rosenquist, Roy Lichtenstein eta, batez ere, Andy Warholen artelanek arrakasta handia izan zuten.

6. Kultur aniztasuna eta Globalizazioa (1980-Gaur egun).

Azken hamarkadetan ohiko estilo artistikoei indarra galdu eta aniztasun handia gailendu da artearen munduan. Artearen definizioa bera zalan-tzan jartzen da. Arte minimala, kontzeptuala, performancea eta bideoa nagusitu dira. Figurazioak ere bere susperraldia izango du. David Salle, Basquiat, Schnabel, Serra eta Violaren pinturak, bideoak eta instalazioek arreta lortuko duten lanak dira. ■

Apirilaren 27ra arte egongo da ikusgai arte iparramerikarren atzera begirako erakusketa hau.

ARGITALPEN BERRIAK

1B **Carlota-ren egunkari urdina** Gemma Lienas Itzultzailea: Jesus Mari Lasa Erein, 2007



Gemma Lienas idazlearen hainbat liburutako protagonista nagusia da Carlota. Ausarta eta independentea, kolore ezberdinetako egunkariak idatziko dituen neska da. Indarkeriaren salaketa egiteko erabiliko du oraingoan Lienas-ek, gure gizartean ahulena diren haur eta gazteak gogoan dituela. Injustiziaren aurrean isilik geratu ordez, aurre egin behar zaiola aldarrikatzen duen lana duzu hau.

Hona hemen, adierazgarria delakoan, aukeratu dugun pasartea:

Bi minutu nahikoa izan dira, alajaina, guztiok lur jota uzteko. Bi minutu, albistegiaren sarrerako titularrak emateko behar direnak. Ilea lazteko moduko irudiak eta informazioa aurreratu dute gaurkoan.

“Lehen hiru albisteetako protagonista etxe indarkeria da” esan du aurkezleak.

–Genero indarkeria –zuzendu du amak (noiz-behinka egin ohi duen zerbait da telebistatik hitz egiten duen pertsona zuzentze hori). Eta erantsi du—: Esango dizuet gero.

Aurkezleak kontatu du larunbatetik igandera hiru emakume gertatu direla hilik, Espainian, beren bikotekideen kariaz, hau da, senar, mutil-lagun, senargai edo bikote ohiaren eskuetan. Hogeita bederatzita urteko emakumezko bat kolpeka hil du hiltzaileak. Gizonak dio eztabaidan ari zirela eta pasa egin dela nonbait, baina ez zuela hiltzeko asmorik.

Gemma Lienas, *Carlota-ren egunkari urdina*, Erein, 2007, 22-23. orr.

1B Pasartea irakurri ondoren, saia zaituz albistegian emandako berriaren titular egokia aukeratzeko.

Zein da, zure ustez, egokiena? Zergatik?

a.- *Larunbatetik, hiru emakume gertatu dira hilik, Espainian, beren bikotekidearen kariaz.*

b.- *Larunbatetik, Espainian hiru izan dira beren senar, mutil-lagun, senargai edo bikote ohiaren eskuetan hil diren emakumeak.*

c.- *Hiru emakume hil dira aste honetan.*

1B **Bidaldi handien atlas historikoa** Koldo Ortega, Alizia Stürtze Gaiak, 2007



Liburu honetan mundu osoko hainbat bidaiariren joan-etorriak azaltzen dira, era kronologikoa azalduak. Bidaia luzeak dira denak, esploratzaileak dira protagonistak. Bidaia horien helburuak askotarikoak dira: politikoak, militarrik, merkataritzari lotutakoak, erlijioari, zientzia xede dutenak... Bidaia horietako batzuek itsasoak zeharkatzen dituzte, beste batzuek airea edo lurra. Tartean badira Euskal Herriko bidaiariak ere, adibidez, Benjamin Tuterakoa, Manuel Iradier, Elisabet Urkiolakoa edo Andrés Urdaneta. Azken hau jaio zeneko bosgarren urteurrena ari dira ospatzen Ordizian. Hara zer dioten liburu honek ordiziarraz: “Urdaneta, Ordizian jaioa, eleanitza zen. Erdaraz idazten zuen arren, euskaraz pentsatzen zuen eta horixe idazten zuen erdaraz. Haren idazkiak, bada, euskara ez dakienarentzat ez dira hain ulertterazak, euskarazko joskeraren sintaktikoak eta esamoldeak erabiltzen dituelako”.

1B **Irati: Saiak** Irudiak: Juan Luis Landa Gidoia: Joxean Muñoz Ikastolen Elkarteak, 2007



Ikastolen Elkartearen eskutik datorkigu *Irati: Saiak* izeneko komikia. *Xabiroi* aldizkariaren bilduma honetako protagonista da Irati. Oihanean jaio zen neska ederra, lamia baten eta gizaki baten alaba da. Beti ezkutuan daramatza oinak, Irati erdi gizaki erdi lamia delako. Sorgin batek hezi du, oihanean bihotzean.


Abentura honetan, Irati zazpi urterako erbesteratuko dute jainkoek, Tartalo bat hil zuelako. Oihana utzi eta gizakien mundura joango da, nahiz eta bertan arrotz sentitzen den. Galtxagorriak eta armak lagun dituela, Kaskazurirekin egingo du topo.

2 Esan dugu Irati ez dagoela bakarrik, galtxagorriak baitu berekin. Gizaki hauen inguruko hainbat ideia dituzu segidan. Saia zaituz denak erabiltzen, behar bezala lotuz, testu txukun bat osatze aldera.

Euskal mitologiako pertsonaiak, txiki-txikiak, praka gorri-dunak, gizakiei laguntzen diete, orraztokian ezkututzen dira, nagusiaren aginduak berehala betetzen dituzte, “Eta orain zer?” oihu egiten dute.

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera.

GURUTZEGRAMA



Zeharka:

1. Auñamendietako (Pirinioak) haran baten izena, edo jaki batena euskaraz. 5. Nor. 9. (Flora: Naroa izenarekin egiten du errima). 11. Maiz. 12. Izenordaina, deklinatua. 14. Gurasoetako bat. 15. Era zitalean. 17. Zerbaitetan ibili edo... 18. Maiz. 19. Mutil izena. 21. Errioxako herri horretara euskaldun asko joaten da, eta euskarak orain dela gutxi arte iraun du. 23. "Bukatu da" esateko. 24. Lur-eremuen azalera neurtzeko era Ingalaterran. 26. Emaitza. 28. Adibidez, zartako batek gorputzean uzten duen arrastoa. 31. Animalia perretxiko zalea. 32. Trebe.

Goitik behera:

1. Zilarraren sinbolo kimikoa. 2. Jainko egiptiarra. 3. Azido mota bat. 4. Galde-tzailea. 5. Puska. 6. Modu. 7. Iridioaren sinbolo kimikoa. 8. "Nator" aditzean n-letrak adierazten duena. 10. Musika-konposizio bat ahots bakar batek kantatzekoa: adibidez, Mozart-ek operarako asko egin zituen horrelakoak. 11. Lehor. 13. Etruriako. 16. Aisialdia. 18. Azkar. 20. Bilboko autobusa edo Bilbo... autobusa (zer falta da?). 21. Irlandaren gaierazko izena. (edo: Unibertsitateko eskal irakasleen elkarte). 22. Barre. 23. Barrearen onomatopeia. 25. Athletik futbol-taldeko jokalaria, Ferreira abizenek, neska. Izen bera du, baina "v"z idatzita Longoria da deituraz. (Zuek "b"z jarri izena) 26. Europar Batasuna (siglak). 27. Silaba hau bi aldiz esanda, "ura" esaten ari zara haur-hizkeran. 29. Interjekzioa. 30. Noka.

HIRU ADISKIDEAK

Hiru neska europar hauek herrialde banatan jaio dira. Euskal Herria bisitatu berri dute, eta oporretan daudenez, elkar ezagutu zuten hirira joan dira, Parisa. Parisen jatetxe dotore batean afalduko dute, nor bere herrialdera itzuli aurretik. Esazu zein herri/hiritan izan den bakoitza, zer ikusi duen, eta nongoa den.

- Danimarkarra Hendaian izan da.
- Suediarrak Rolls Royce museoa ikusi du Loizaga Dorrean.
- Inge Kursaal-en izan da.
- Galdamesera joan da Anny.
- Inge ez da suediarra.
- Donostian izan dena austriarra da.
- Barbarak Abadia gaztelua ikusi du.

IZENA	JAIOTERRIA	HIRIA	ERAIKINA
.....
.....
.....



Erantzunak: 46. or.

PUBLIZITATEAREN
ARRASTOTIK

Argazki handiago baten zatia da hau. Ordulariak iragartzeko argazki bat da, eta guk ukitu batzuk egin dizkiogu argazkiari. Ordularia eskumuturrean dago, eta ez dira ikusten, baina behatzak ezker aldean daude. Zeri heltzen ari direla uste duzu behatzak?

ARGAZKI-KLIK!



Argazki hau erabili nahi dugu istorio bat kontatzeko. Ez dakiagu egia ala gezurra den, baina egia izan liteke. Esaldi okerragoak ikusi ditugu. Behin auto-etxe batean hauxe jartzen omen zuten: "Si usted compra este coche, tendrá seguro de accidente".

Zuk nola jarriko zenuke hori euskaraz? Eta nola uste duzu jarri zutela? Idatzi bi esaldiak.

Honela jarriko nuke:

Honela jarri zuten:

Skaslearnen koaderno



HADE 387



I. EUSKARA HOBETZEN

Ale honetan, honako moldeak izango dituzu hizpide:

- **ARROPA "ERANTZI"**
- **PIKARDIA**
- **"Urrutiko intxaurrek hamalau, gerturatu eta lau!"**

Irakur itzazu azalpenak, eta ondoren, praktikorako proposatu dizkizugun ariketak osatu. Badakizu, bestalde, Ikasbil atarian *ikas-materialen* atalean aurki ditzakezula, argibidez eta entzungaiez horniturik.

1. atala: HOBETZEKO OHARRAK

[ARROPA "ERANTZI"]

Arropa biluzik geratzearaino erantzi daiteke, nahi bada, baina... zalantza sortzen zaigu "arropa kendu" esaten dugunean. Izan ere, garbi dago "erantzi"-ren antonimoa "jantzi" dela, eta horregatik esaten dugula: "soinekoa erantzi", "oinetakoak erantzi", "txapela erantzi", etab. Arazoa da hitzun batzuek ez dutela inoiz "erantzi" erabiltzen, baizik eta "kendu" aditza beti eta, jakina, ez dira gauza bera!

Ez dira gauza bera "oinetakoak kendu" eta "oinetakoak erantzi".

Adibidez, "Oinetakoak kendu dizkiote, eta oinutsik etorri behar izan du".
(Kasu honetan, zapatak *eraman/lapurtu* egin dizkiotela esan nahi du)
"Oinetakoak erantzi dizkiot, berak ezin baitu".
(Kasu honetan, berriz, oinak zapatatetik ateratzen lagundu diola esan nahi du)

Orain, azter itzazu hurrengo esaldiok eta esan zuzenak ala okerrak diren. Bide batez, zuzen itzazu oker daudenak, zuzenketa proposatuz:

- 1.- Kendu zaitetz paretik, enbarazu egiten didazu eta!
- 2.- Erantzi zaitetz, maitea, ohea sartu aurretik
- 3.- Zapatak erantzi zituenean, kirats izugarria sumatu genuen
- 4.- Soinekoa erantzi beharko duzu, zikindu nahi ez baduzu
- 5.- Kendu jertse hori, hemen bero dago eta!
- 6.- Txapela kendu eta belauniko jarri zen
- 7.- Betaurrekoak erazten ez badituzu, busti egingo zaizkizu
- 8.- Berokia kendu eta aterkia utzi zioten pertxeroan
- 9.- Hondartza nudista batean ezinbestekoa da arropa kentzea
- 10.- Amaiak Maddaleni kendu zion gona, berak jantzi nahi zuen eta





2. atala: ADISKIDE GAIZTOAK

[PIKARDIA]

Gaztelaniaz ez bezala, baditu euskaraz hainbat esanahi gehiago. Hona hemen adibide batzuk:

1. *Pikardia ikaragarriak sortu zituen ekaitzak kostaldean*
2. *Gerra garaian gertatu zen pikardia hori*
3. *Oso gustuko du pikardiak egitea*
4. *Gure alabak pikardia ikaragarria du bere adinerako*

Aurreko lau adibideetan *pikardia* hitzak hartzen dituen esanahiak azaltzen saiatu gara segidan. Lotuko al dituzu adibideak eta azalpenak?

- a.- Traizioa, saldukeria
- b.- Kalte, ondorio larriak
- c.- Malezia, gaiztakeria
- d.- Zitalkeriaz jokatzea

Saia zaitetz orain beste esaldi bana idazten, *pikardia* hitzaren lau adiera ezberdinak kontuan hartuz:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-

3. atala: ESAERAK ETA ESAPIDEAK

["Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau!"]

Zer esan nahi dugu esaldi honekin, edota zer adierazi nahirik erabil dezakegu esaldi hau?

Denok aitortu izan diogu inoiz elkarri auzoko gauza edota pertsonen etxeoket baina fama hobea edo sona handiagoa izan ohi dutela askotan, nahiz eta sarritan kontua besterik izan. Hamaika adibide jar daitezke, baina funtsean, kontua hori da: etxekoa baino kanpoko hobea; alegia, "etxeoket batere ez du balio, baina zeinen ederra etxez kanpoko hori!"

Bada, kasu horietan erabil dezakegu esaldi hori, hau da, nolabait esateko, nire usteak ustel gertatu direnean: "urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau".

Eta bada horren antzeko beste bat ere, eta, jakina, zentzu berekoa: "urruneko eltzea urrez, gerturatu orduko lurrez".

Azalpena irakurri ondoren, esango al zenuke hauetako zein egoeratan litzatekeen egokia "Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau!" esaldia erabiltzea?

- a.- Gurasoekin, etxe berean bizi zara. Tarteka, zure ahizpa edota anaia etortzen zaizkie bisitan eta horrelakoetan, egunero ez bezala, otordu berezia jartzen du aitak. Gainera, ohiko purrustaden orde, dena da poza eta aurpegi onak ikusten dira etxean.
- b.- Bere baratzeiko babarrunak ekarri dizkizu bizilagunak. Zuk, ordea, nahiago dituzu zure kaleko dendan erosten dituzunak, kanpotik ekartzen baitituzte.

IKUSIZ IKASI

Gogoratzen al duzue? Gure abenduko alean (HABE 385), SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN atalaren bukaran, azken ataza edo eginkizuna proposatu genizuen. Hauxe zen:

ZURE DESKRIPZIOA

Deskriba ezazu nolakoa den zure armairua erosketak egin ondoren. A atazan famatuek egin duten antzera:

Nire armairua, orain

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Idatzi ondoren, guri bidaltzeko gonbita egin genizuen, HABE aldizkariaren elastikoa oparituko genizuela aginduz.

Izan dugu, bada, erantzunik, Eibarko AEK euskaltegiko ikasle batzuek idatzi egin baitigute. Hona hemen jaso ditugun deskripzioak:

1. Nire armairuan orain ez dago arropa asko. Ez zait sekula modan joatea inporta, baina joan den astean asko gustatzen zitzaidan neska bat ezagutu nuenez, txipa aldatzen hasi naiz eta asteburuan Bilbora joan naiz erropa erostera. Kamiseta eta izerditako estuak erosi ditut giharrak markatzeko. Nahiz eta tripa honekin ez dakidan neska honi gustatuko natzaion. Badaezpada jaka edo beroki zabal bat ere erosi dut.

ALBERTO

2. Nire armairuan arropa erosoak daukat. Praka bakeroak asko gustatzen zaizkidalako eta artilezko jertseak. Neguan, normalean arropa iluna erabiltzen dut, beltza. Jertse beltza erosi dut eta soineko bat denda batean ikusi dudalako. Galtza piratak erosi ditut ondo geratzen zaizkidalako, eta horrela beste galtzak botako ditut txiki geratzen zaizkidalako.

SONIA

3. Nire armairuan arropa erosoak daukat. Galtza bakeroak, kamiseta batzuk, artilezko jertsea eta jaka batzuk. Kolore diferentetako arropa daukat: grisa, marroia, berdea eta beltza gustatzen zaizkit. Bota batzuk erosi nahi ditut, zaharrak bota ahal izateko.

JAVI





1 Hobetze aldera

Hasteko, idatzietan konpontzeko dauden arazoei erreparatuko diegu. Oro har, oso ondo idatzita badaude ere, badira hobetu daitezkeen hainbat txikieria. Saia zaitetz egiten:



- 1.- Ez zait sekula modan joatea inporta
Zure proposamena:
.....
- 2.- Nahiz eta tripa honekin ez dakidan neska honi gustatuko natzaion
Zure proposamena:
.....
- 3.- Praka bakeroak asko gustatzen zaizkidalako eta artilezko jertseak
Zure proposamena:
.....

Zer idatziko zenuke "txipa aldatu"ren ordez? Kontuan izan testu-mailan ongi ulertu behar dela, ez bakarrik esaldi-mailan.

Ez zait sekula modan joatea inporta, baina joan den astean asko gustatzen zitzaidan neska bat ezagutu nuenez, **txipa aldatzen** hasi naiz



Zure proposamena:
.....

2 Berridazketak

Aukeratu ditugun esaldiok emandako moldeez berridazten saia zaitetz:



- 1.- Nire armairuan orain ez dago arropa asko
..... askorik
- 2.- Asko gustatzen zitzaidan neska bat ezagutu nuenez, asteburuan Bilbora joan naiz arropa erostera
Asteburuan-lako
- 3.- Nahiz eta ez dakidan neska honen gustukoa izango naizen
..... ez ba ere
- 4.- Galtza piratak erosi ditut ondo geratzen zaizkidalako
..... eta
- 5.- Grisa, marroia, berdea eta beltza gustatzen zaizkit
..... gustuko

▶ IDAZTARAUAK

Denok dakigu gauza bat dela nola esan edo ahoskatzen ditugun hitzak eta beste bat, oso desberdina, nola idatzi behar diren. Hori horrela, ohikoa da hainbat hitz zailak gertatzea eta beti zalantza sortzea. Horien artean ditugun ale honetako atalean aztertuko ditugunak. Ikus dezagun zer dioen Euskaltzaindiak:

> USAIN, ARRAIN, ZAIN

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: -ain eta -ai aldaerak dituzten hitzetan -ain formak erabil daitezela: hau da, *arrain, usain, zain*, (eta honen eratorriak diren *artzain, atezain, diruzain, itzain, ertzain, gotzain* .a.), *dohain*, eta orobat, *orain* idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero *mahai*, eta ez *mahain*, idatz dadila.

Araua irakurrita, saia zaitetz esaldiotan dauden akatsak atzematen eta, ondoren, behar bezala idazten:



- 1.- Urrutira eraman zituen bere ardiak artzaiak, belarrik ez zegoen eta.
- 2.- Mesedez, jantz itzazu zapatak eta ez erantzi abisatu gabe, usai ederra utzi duzu!
- 3.- Sentitzen dut, baina diruzainaren esku dago diru-kopuru hori aurreratzea, ez niri.
- 4.- Idi pare irabazlea ukuiluan sartzera zihoala, zauritua gertatu zen itzaia.
- 5.- Apaiza baino gotzaia izateko jaioa zela zioen beti gure osaba Jazintok.
- 6.- Beti berdin zabilta! Ez al dakizu denak zure zai gaudela! Azkar etorri!
- 7.- Partida bikaina jokatu zuen etxeko taldeak eta atezainak bitan geratu zuen baloia.
- 8.- Dohai berezia du Jaionek txistek kontatzeko, ez dauka nire antzik!
- 9.- Edanda zihoanez, autoa bertan uzteko agindu zioten ertzainek.
- 10.- Jende gehiegi zegoen mahainaren inguruan, ondorioz, oso deserosoa izan zen bazkaltzea.
- 11.- Arraia garbitzen prestatzen adina denbora behar da.
- 12.- Zenbat ordaindu dudan? Ezer ez, dohain eman dit eta!

Hitz-bikoteetako hauetatik zein dago ongi idatzita? Ezaba ezazu gaizki dagoena:



1. zai egon/zain egon
2. mahai gainean/mahain gainean
3. itzainak/itzaiak
4. arraiarekin/arrainarekin
5. artzainari/artzaiari
6. usairik/usainik
7. gotzainarentzat/gotzaiarentzat
8. dohainak/dohaiak
9. diruzainarengatik/diruzaiarengatik
10. ertzainei/ertzaiei

Erantzun-orria, 46. orrialdean

Bukatzeko, esaldi bana idatzi, hitz hauek parentesi artean adierazita dagoen kasuan deklinatuz:



ARRAIN (NORK):

GOTZAIN (NORI):

MAHAI (NON):

DOHAIN (NOR):

ARTZAIN (NOREN):



09

**AURKAKO IRITZIAK**

"Berez olatuak badauden tokian, zertarako sortu beste bat?"

"Nahiago nuke dirua beste zerbaite-tan gastatuko balute. Donostiak badu zertan hobetua bestela ere"

"Olatua? Hau tsunami bat da. Hiria desegingo duena"

ALDEKO IRITZIAK

"Donostiari ikaragarrizko mesedea egingo dio: honelako ideiek hiria berriro egiten dute"

"Guggenheim-ekin beste hainbeste gertatu zela gogoratzen zarete? Eta orain nork jartzen du zalantzan museoa?"

"Eskerrak baden ideia ausartak aurrera ateratzeko jendea!"

11



zen(a) moldearen esanahia b aukera da, hau da: *hildakoa, defuntua*.

Euskaraz

Elur-maluta
Elur-jausia
Elurra egin/elurtu
Elur-bustia
Elur-giroa
Elurketa/elurtea

13



BEHARGIN. - *Trabajador/a. Ouvrier/ère.*

OINORDEKO. - *Primogénito/a, sucesor/a. Héritier/ère, successeur.*

< EHUNEKOAK >

"a" da erantzun zuzena

26

**Zerrenda:**

- Erosketak egiteko orga
- Frantsesek hitz egiteko premia izatea
- Frantsesek eskua emateko premia izatea
- Frantsesek muxuka aritzeko premia izatea
- Kaleak barazkiz eta frutaz beteta ikustea
- Gazta-saltokiak
- Gizonezkoak erosketak egiten ikustea

Elkarrizketan aipatutakoak:

- Erosketak egiteko orga
- Gizonezkoak erosketak egiten ikustea

Pasartean ageri ez den nobedadea:

- Nahi zituen liburuak eta pelikulak ikusteko askatasuna ezagutu zuen

Gehiegizko adierazpenak:

- Frantsesek hitz egiteko premia izatea
- Frantsesek eskua emateko premia izatea
- Frantsesek muxuka aritzeko premia izatea

Harrigarriak eta gustukoak:

- Kaleak barazkiz eta frutaz beteta ikustea
- Gazta-saltokiak

35

**1.- Diego eta Mari eztabaidan**

a.- GEZURRA; b.- EGIA
c.- GEZURRA; d.- EGIA

2.- Mezatan

1.- b; 2.- c; 3.- b; 4.- b

3.- Alaitzi lagundu nahian

1.- b; 2.- d; 3.- a; 4.- c

37



Titularrik egokiena "a" aukeran ageri dena da, nahikoa informazioa eman ematen duelako, baina gehiegi luzatu gabe. "b" aukera luzeegia da albistegi baterako eta "c" aukera, berriz, eskasegia, nahikoa informazioz ematen ez duelako.

Galtxagorriak

Hona hemen eredu posible bat:


Galtxagorria euskal mitologiako pertsonaia bat da. Mamurrak eta Prakagorriak gizakiei beren lan harrigarrietan laguntzen dieten ahaide txiki-txikiak dira. Praka gorriak dituzte soinean, eta orraztokian ezkututzen dira. Euren jabeari biraka-biraka hasten zaizkio oihi batean galdezka. "Eta orain zer? Eta orain zer?" Eta berehala betetzen dituzte nagusiaren aginduak, nahiz eta ikaragarrienak izan. Beste izen batzuk: Aidetikako (Saran); Aiharra, Haio (Lapurdin); Beste mutilak (Gernikan), Patuek (Muxika)...

Galtxagorrien deskribapen hau "http://eu.wikipedia.org/wiki/Galtxagorri"tik hartu dugu (moldatua).

38



GURUTZEGRAMA



ARGAZKI-KLIK

Honela jartzen omen zuen esaldiak: "Kotxe hau erosten baduzu, akzidente segurua izango duzu", "Auto hau erosten baduzu, istripu-asegurua izango duzu" jarri orde.

PUBLIZITATEAREN ARRASTOTIK



HIRU ADISKIDEAK

IZENA	JAIOERRIA	HIRIA	ERAIKINA
Barbara	Danimarka	Hendaia	Abadia gaztelua
Anny	Suedia	Galdames	Loizaga Dorrea
Inge	Austria	Donostia	Kursaal

[40/41]

1. atala: HOBETZEKO OHARRAK

- 1.- Ondo dago
- 2.- Ondo dago
- 3.- Ondo dago
- 4.- Ondo dago
- 5.- Gaizki dago, jertsea *erantzi* egin behar baitu
- 6.- Gaizki dago, txapela *erantzi* egin behar baitu
- 7.- Ondo dago
- 8.- Gaizki dago, berokia *erantzi* egin behar baitu
- 9.- Gaizki dago, arropa *erantzi* egin behar baita
- 10.- Ondo dago

2. atala: ADISKIDE GAIZTOAK

- 1.- b
- 2.- a
- 3.- d
- 4.- c

3. atala: ESAERAK ETA ESAPIDEAK

Esaldia, lehenengo egoeran, hau da, "a" egoeran erabiltzeko litzateke egokia.

[42/43]

1. Hobetze aldera

- 1.- Ez zait sekula modan joatea inporta izan
- 2.- Nahiz eta tripa honekin ez dakidan neska honen gustukoa izango naizen
- 3.- Praka bakeroak, asko gustatzen zaizkidalako eta artilezko jertseak

Ez zait sekula modan joatea inporta **izan**, baina joan den astean asko gustatzen zitzaidan neska bat ezagutu nuenez, **nire orain arteko jarrera/hori ere** aldatzen hasi naiz

2. Berridazketak

- 1.- Nire armairuan orain arropa askorik ez dago.
- 2.- Asteburuan Bilbora joan naiz arropa erostera, asko gustatzen zitzaidan neska bat ezagutu nuelako.
- 3.- Neska honen gustukoa izango naizen ez badakit ere.
- 4.- Galtza piratak erosi ditut, ondo geratzen zaizkit eta.
- 5.- Grisa, marroia, berdea eta beltza ditut gustuko

[44]

- 1.- artzainak
- 2.- usain
- 3.- *diruzain* hitza ondo idatzita dago
- 4.- itzaina
- 5.- gotzaina
- 6.- zain
- 7.- *atezain* hitza ondo idatzita dago
- 8.- dohain
- 9.- *ertzainek* hitza ondo idatzita dago
- 10.- mahaiaren
- 11.- arraina
- 12.- *dohain* hitza ondo idatzita dago

1. ~~zai~~egon / zain egon
2. mahai gainean / ~~mahain~~ gainean
3. itzainak / ~~itzaiak~~
4. ~~arraiarekin~~ / arrainarekin
5. artzainari / ~~artzaiari~~
6. ~~usarik~~ / usainik
7. gotzainarentzat / ~~gotzaiarentzat~~
8. dohainak / ~~dohaiak~~
9. diruzainarengatik / ~~diruzaiarengatik~~
10. ertzainei / ~~ertzaiei~~



ikasbil

EUSKARA-IKASLEAREN

ATARI BERRIA

etorkinak euskara ikasten

aïsa

harrera-ikastaroak 2008

¡Animate a aprender Euskera!

¡X +.ON.0+ .+O:EA++ +:0R:0+ !

N'hésitez plus, apprenez l'euskara!

تشجع لتعلم اللغة الباسكية !!

Take a chance and learn Euskara!

来学习巴斯克语吧!



ERREPÚBLICA EUSKAR
GUBERNUA
Euzko Legebiltzaria
DEPARTAMENTO DE ASUNTOS
Y SERVICIOS SOCIALES
Departamentuak

HADE